



1994ko
IRAKASLEEN
HIZKUNTZ
ESKAKIZUNAK
Azterketak

.361(079.1)

eitza

katalogoa

Eibarko Hezkuntza Esparrua

943.20.27.48

20600 EIBAR

**IRAKASLEEN
HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK
1994KO AZTERKETAK**



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1994

Argitaraldia: 1.a, 1994ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellintongo dukearen kalea 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala: Jesus Iturriza

Fotokonposaketa: Didot, S.A.
Nerbioi kalea, 3 - 48001 Bilbo

Inprimaketa: Gráficas Santamaria, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 - Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-0506-7

L.G.: VI-789/94

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
I. 1994ko DEIALDI IREKIA	9
I.1. Deialdi irekia: HE1eko azterketa	11
I.2. Deialdi irekia: HE2ko azterketa	33
II. 1994ko 1.DEIALDI ITXIA	53
II.1. Lehen Deialdi itxia: HE1eko azterketa	55
II.2. Lehen Deialdi itxia HE2ko azterketa	69
III. 1994ko 2.DEIALDI ITXIA	77
III.1. Bigarren Deialdi itxia: HE1eko azterketa	79
III.2. Bigarren Deialdi itxia: HE2ko azterketa	93
IV. AHOZKO AZTERKETAK	101
IV.1. Ahozko azterketak: HE1	103
IV.2. Ahozko azterketak: HE2	109
V. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK	111
V.1. HE1eko irizpideak	113
V.2. HE2ko irizpideak	117
V.3. Lagungarriak	121
V.4. Puntuazio-sistema	123

VI. ERANTZUNAK	127
VI.1. Lehen deialdiko erantzunak	129
VI.2. Bigarren deialdiko erantzunak	131
VII. ERASKINAK	132
Estatistika-laburpena	135

HITZAURREA

Liburuska honekin bigarren urtez argitara ematen dira irakasleen hizkuntz eskakizunen azterketak. Datozen urteetan ere irakasle frankok egingo dituzte azterketa hauek, eta irakasle guzti horiengan pentsaturik argitaratzen dugu liburuska hau. Izan ere, etorkizuneko azterketari horiei baliagarri izango zaie benetako azterketak eza-gutzea.

Joan zaigun urte honetan, 1994an hain zuzen ere, hizkuntz eskakizunen hiru deialdi egin dira: horietariko bi itxiak izan dira, IRALEn liberatuta egon diren irakasleentzat eratuak. Hirugarrena, berriz, irekia, oposizioetara aurkezten ziren irakasleei egin zaie, eta bide batez, irakaskuntza publikoan jardunez, HE1 edo HE2 lortu nahi izan dutenei.

Joan zen urteko liburuaren antzera, bi atal ditu aurtengoak ere:

- a) Azterketa-materialak. Deialdi irekiko zein itxietako azterketa idatziak aurki daitezke hemen nagusiki, ahozko azterketen adibide batzuekin batera.
- b) Zuzenketarako irizpideak. Azterketak zuzentzeko erabili diren irizpide eta baremoak biltzen dira atal honetan: aztertzaileek eskueran izan dituzten txostenak dira beraz.

Era berean, azterketaldi bakoitzean izan diren emaitzen laburpen estatistiko txiki bat eskaintzen zaizue azken atalean.

Horra bada, liburuska honek bere baitan biltzen duen edukina. Ebaluazio-material hauek irakasleentzat lagungarri izango direla espero dugu.

M. Antonia Ozkariz
Pedagogi Berrikuntzarako zuzendaria

I. 1994ko DEIALDI IREKIA

I.1 DEIALDI IREKIA: HE1eko AZTERKETA

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE1
Eredua: A

1. PROBA

1994ko ekainaren 4a

<i>1. Deitura:</i>	<i>2. Deitura:</i>										
<i>Izena:</i>	<i>NAN:</i> <table border="1"><tr><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>										

OHARRAK

1. Atera ezazu suelto dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
2. Konprobatu azterketa honek 15 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela
3. Erantzuten hasi aurretik bete sure datuak eta erantzun-orrian eta koadernoan.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
- 7., Azterketa-material guztiak entregatu behar dira amaieran.

ARRETAZ IRAKURRI

- a) Proba honek bi ariketa ditu:
 - Aukera Anitzeko Galdekizunak 50 galdera ditu (50 puntu)
 - Irakurmenak 10 galdera ditu, bina puntu balio dutenak (20 puntu).
- b) Guztira 70 puntu dira. Proba gainditzeko **40 puntu lortu behar dira**.
- c) Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- d) Erantzuteko denbora: **ordu t'erdia**.
- e) Proba hau baztertzailea da.

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

Lau aukeren artean erantzun zuzena aukeratu eta ERANTZUN-ORRIAN markatu. Koaderno honetan EZ idatzi.

1.-Non dago «eraskin» hitza ongi erabilita?

- a) Ikasle horren aita eraskina da.
- b) Taldeak duen mailarako hori oso eraskina da.
- c) Janari honen eraskinak ugariak dira.
- d) Agiriaren eraskinean argitzen dira baldintzak.

2.-Zer esan zizun amak hondartzara joan baino lehen?

- a) Kontuz ibiltzeko eguzkiarekin eta uretan ez sartzeko.
- b) Kontuz ibiltzeko eguzkirekin eta uretan ez sartzeko.
- c) Urean ez sartzeko eta eguzkiarekin kontuz ibiltzeko.
- d) Urean ez sartzeko eta eguzkiaz kontuz ibiltzeko.

3.-Ondoko esaldietatik zein erabiltzen da normalean?

- a) Halakoak gutxi gertatzen dira.
- b) Halakoak gutxitan gertatzen dira.
- c) Halakoa gutxitan gertatzen dira.
- d) Halakoak batzuk gertatzen dira.

4.-Zergatik zaude hain haserre?

- a) Ez zidatelako gaia azaltzera utzi.
- b) Ez zidatelako gaia azaltzen utzi.
- c) Ez zidatelako gaia azaltzea utzi.
- d) Ez zidatelako gaia azaltzeari utzi.

5.-Zer moduzko ikasleak dituzu?

- a) Ezin onak.
- b) Ezin hobeak.
- c) Ezin hoberenak.
- d) Ezin onegiak.

6.-*Etxe hori ... diseinatu dute.*

- a) pertsona prestatutak
- b) prestatuta dauden pertsonak
- c) prestatuta dauden pertsonak
- d) prestatutako pertsonak

7.-*Zer galdetu dizu amak lehen?*

- a) Ea berandutan iritsi garen.
- b) Ea zer orduan iritsi gara.
- c) Ea zer ordutan iritsi garen.
- d) Ea nolako ordutan iritsi gara.

8.-«*Guraso eta irakasleok elkar hartu behar dugu*» esamoldeak zer adierazi nahi du?

- a) Batera jokatu behar dugula.
- b) Elkarrekin joan behar dugula zerbait hartzera.
- c) Ezin garela bata bestearen arloan sartu.
- d) Bata bestearekin kontuz ibili behar dugula.

9.-*Noiz joango zarete bizitzera etxe berrira?*

- a) Handik astebetera joango gara.
- b) Hurrengo astebetean joango gara.
- c) Hamar astebetean barruan joango gara.
- d) Hemendik astebetera han izango gara.

10.-*Zein da egokiena?*

- a) Nekatuta nagoenez, poliki-poliki abiatuko naiz.
- b) Poliki-poliki abiatuko naiz, nekatuta nagoenez.
- c) Poliki-poliki abiatuko naiz, nekatuta nagoen eta.
- d) Poliki-poliki abiatuko naiz, nekatuta egoteagatik.

11.-Pedagogi Berrikuntzako zuzendariari erreklamazio-eskaera egiteko zein da hasiera egokia?

- a) Txit zuzendari anderea:
- b) Zuzendari errukiorra:
- c) Zer moduz zuzendari hori?
- d) Zuzendari andere hori:

12.-*Ura oso gora iritsi zen uholdeetan? Aukeratu zuzena eta zentzuzkoena.*

- a) Baserriko lehenengo solairurarte iritsi zen.
- b) Baserriko lehenengo solairuraino iritsi zen.
- c) Baserriko lehengo solairuraino iritsi zen.
- d) Baserriko lehengo solairurarte iritsi zen.

13.-*Zer dela eta eskatu duzue laguntza?*

- a) Lanak garaiz bukatuarren eskatu dugu laguntza.
- b) Lanak garaiz bukatzearren eskatu dugu laguntza.
- c) Lanak garaiz bukatuagatik eskatu dugu laguntza.
- d) Lanak garaiz bukatzearengatik eskatu dugu laguntza.

14.-Zein da **okerra**?

- a) Hori ezin dugu egin.
- b) Hori ezin dugu egiterik.
- c) Hori ez daukagu egiterik.
- d) Hori ezin dezakegu egin.

15.-*Nola egin zenituzten ariketak?*

- a) Esan ziguten arauera egin genituen.
- b) Esanda moduan egin genituen.
- c) Esandako bezala egin genituen.
- d) Esan ziguten bezala egin genituen.

16.-Esaldi bakarra da gramatikalki zuzena. Zein?

- a) Zer ekarri diona galdetu dio.
- b) Ez dakit gaia nola azaltzen.
- c) Behin eta berriz agindu dio etortzeko.
- d) Semea zuekin ibiltzera nahi dut.

17.-Ikasleek jolasera joateko baimena eskatu dizute une desegokian. Eman ezezkoa.

- a) Ez, jakina!
- b) Noski, ez!
- c) Ezetz, jakina!
- d) Ezta pentsatu ere!

18.-Aukera ezazu atsotitz honen esangura: *Geroko geroa, alferraren leloa.*

- a) Etorkizunean ez da nagirik izango.
- b) Geroa, bukatzen ez den leloa.
- c) Lana gerotik gerora uztea leloarena egitea da.
- d) Alferrak gerorako uzten du lana.

19.-Ikasle bati buruzko iritzia emateko zein da forma zuzena?

- a) Nire ustez oso saiatua da.
- b) Nire ustez oso saiatua dela.
- c) Nire ustez oso saiatua den.
- d) Nire ustez oso saiatua baita.

20.-Aukera ezazu esaera honen esangura: *Kafetxo bat hartzeko irrikitan nago!*

- a) Kafea hartzeko prest nago.
- b) Edozein egoeratan kafea hartuko nuke.
- c) Gogo handia dut kafea hartzeko.
- d) Kafea hartu ezinik nabil.

21.-Aukera ezazu honen parekoa: *Iaz jaialdira ikasle gutxi etorri zen. Aurten, ordea, asko.*

- a) Aurten iaz baino ikasle gehixeago etorri da jaialdira.
- b) Aurten ezezik iaz ere ikasle gutxi etorri zen jaialdira.
- c) Iaz izan ezik aurten ikasle asko etorri da jaialdira.
- d) Iaz jaialdira ikasle gutxi etorri bazen ere, aurten asko etorri da.

22.-Zer esan du irakasleak?

- a) Horrelakoetan hasi baino lehen, geure buruak ezagutu behar direla.
- b) Horrelakoetan hasi baino lehen, geure buruari ezagutu behar diogula.
- c) Horrelakoekin, geure buruari kalte besterik ez diogula egiten.
- d) Horrelakoekin, geure buruei kalterik besterik ez diegula egiten.

23.-Zeinek esan du hori ez dela egia?

- a) Etorri den bat.
- b) Etorri den gizon batak.
- c) Inork.
- d) Lehendabizi hitzegin duenak.

24.-Zein da zuzena?

- a) Guk zuei eskerrak eman zenizkiguten.
- b) Guk zuei eskerrak eman genizkizuen.
- c) Guk zuei eskerrak eman zizkiguten.
- d) Guk zuei eskerrak eman ziguzuen.

25.-Nola eskatuko zenioke baimena irakasleari?

- a) Aizu, gaisorik nagoela eta etxera noala.
- b) Aizu, mesedez etxera joaterik ahal banintz.
- c) Erdi gaisorik nago; badaukat etxera joaterik?
- d) Esanak esan, etxera joango naiz.

26.-«Iraupena» hitza non dago ongi erabilita?

- a) Bere kontra bota ziren iraupenak zirela eta zuzendariak dimititu egin zuen.
- b) Ikasturtearen iraupena luzeegia gertatzen zaigu gehienoi.
- c) Arazoari buruz emandako iraupen guztiak jaso ziren aktan.
- d) Klaseko iraupenak azterketakoak baino errazagoak dira.

27.-*Non ikusten dira halakoak?*

- a) Edonon.
- b) Edozein etxean.
- c) Nonbaitetan.
- d) Lekuetan.

28.-*Zer egiten duzue neguko asteburuetan?*

- a) Eskiatzera goaz.
- b) Eskiatzera joan gara.
- c) Eskiatzera joan ohi gara.
- d) Eskiatzera joaten ohi gara.

29.-*Sor eta lor geratu zen New York-eko 5. hiribidea ikusita. Zer esan nahi du?*

- a) Zarata handia zela eta erdi gor geratu zela.
- b) Aho zabalka geratu zela.
- c) Zer esango ez zekiela geratu zela.
- d) Harrituta geratu zela.

30.-*Lan hori ez dut nik egin behar; ...*

- a) beste inork egin behar du.
- b) beste gizonak egin behar du.
- c) besteren batek egin beharko du.
- d) bestek egin behar dute.

31.-*Zer esan dizu zuzendariak?*

- a) Memoria hainbat eta arinago bukatu, orduan eta hobeto.
- b) Memoria gero eta azkarrago bukatu behar dugula.
- c) Memoria ahalik eta azkarren bukatzeko.
- d) Memoria are azkarrago bukatu behar dugula.

32.-*Zer gertatuko da lanpostu berriekin?*

- a) Nahiz eta iragarri, ez dira omen aterako.
- b) Iragarri arren, ez dira omen aterako.
- c) Iragarri arren, ez dituzte aterako entzun dudala.
- d) Nahiz eta iragarri, omen ez dira aterako.

33.-*Telefonoz deitzean nola galdetuko zenuke?*

- a) Dago Mikel?
- b) Hor Mikel da?
- c) Badago Mikel?
- d) Hor dago Mikel?

34.-*Zer esango zenioke emaitza txarrak izan dituen ikasle bati egoera piska bat arintzeko?*

- a) Zer egingo diogu ba!
- b) Zurekin ez dago zereginik!
- c) Zureak egin du!
- d) Alfer-alferrik ari zara!

35.-*Zenbat irakurtzen du Edurnek?*

- a) Edurnek Aitorrek adina liburuak irakurtzen ditu.
- b) Edurnek Aitorrek bezain liburu politak irakurtzen ditu.
- c) Edurnek Aitorrek adina liburu irakurtzen ditu.
- d) Edurnek Aitorrek bezala liburuak irakurtzen ditu.

36.-Aukera ezazu erantzun egokia: *Goraintziak Andonirentzat!*

- a) Baita zu ere!
- b) Nahi bai, behintzat!
- c) Ez horregatik, gizona!
- d) Zure partetik!

37.-*Zergatik ez zaio gustatzen gazta artzain horri? Aukeratu gramatika aldetik egokiena.*

- a) Bere bizitzan gazta makina bat jan duelako.
- b) Bere bizitzan zehar gazta besterik jan ez duelako.
- c) Bere bizitzan zehar hamaika gaztak jan dituelako.
- d) Bere bizitzan zehar egunero gazta kilo bat jan duelako.

38.-Aukera ezazu honen ordezkoa: *Ura pasa eta gero presa egin.*

- a) Eguzkia nora, zapiak hara.
- b) Ez du izenak egiten izana.
- c) Nolako zura, halako ezpala.
- d) Habia egin deneko, txoria hil.

39.-Lehenengo aldiz zoaz ikastetxe horretara; nola egingo duzu galdera?

- a) Aizu, esaten didazu non dagoen idazkaritza?
- b) Aizu, esan non dagoen idazkaritza!
- c) Aizu, esango didazu non dagoen idazkaritza?
- d) Aizu, esango zenidan non dagoen idazkaritza?

40.-*Ariketak eginda ... jakiteko galdetu diot hori.*

- a) dituela
- b) dituen
- c) dituena
- d) dituenik

41.-Zein da zuzena?

- a) Liburu hori irakurtzen atzo hasi nuen.
- b) Atzo hasi nintzen liburu horren irakurketa.
- c) Atzo hasi nintzen liburu hori irakurtzen.
- d) Liburu hori atzo hasi nintzen.

42.-Lapurrek ... egin zuten ihes.

- a) mendian zehar
- b) mendiaren zehar
- c) mendian traveska
- d) mendien barrena

43.-Ba al zatoz gurekin mendira?

- a) Zuekin? Zoratuta nagoela ala?
- b) Zuekin? Zoratuagatik ere!
- c) Zuekin? Ezta zoratuta ere ez!
- d) Zuekin? Ezta zoratuta ere!

44.-Zein da zuzena?

- a) Gurasoak Bartzelonatik etorrarazi nituen.
- b) Gurasoei Bartzelonatik etorri egin nien.
- c) Gurasoei Bartzelonatik etortzera behartu nien.
- d) Gurasoak Bartzelonatik etortzeko behartu nituen.

45.-Zein ez da sail berekoa?

- a) Jantzi
- b) Aldatu
- c) Berretsi
- d) Erantzi

46.-Fernando Ameriketara joan zen...

- a) artzain
- b) artzaina bezala
- c) artzaintzat
- d) artzaina

47.-Zein da zuzena?

- a) Ondo ezagutuko bazintut, ez nindukezu horrelakorik esango.
- b) Ondo ezagutuko baninduzu, ez zenidake horrelakorik esango.
- c) Ondo ezagutuko bazenit, ez zenidake horrelakorik esango.
- d) Ondo ezagutuko baninduzu, ez zenidan horrelakorik esango.

48.-Aukera ezazu honen parekoa: *Badakit zer esan behar didazun. Dena den ez dizut barkatuko.*

- a) Zer esan behar didazun dakidan arren, ez dizut barkatuko.
- b) Zer esan behar didazun jakitearren, ez dizut barkatuko.
- c) Nahiz eta zuk esan, ez dizut barkatuko.
- d) Nahiz eta arren eskatu, ez dizut barkatuko.

49.-Aukera ezazu erantzun egokia: *Ederki abestu duzu!*

- a) Ez nuen gutxiago nahi!
- b) Baita zuri ere!
- c) Banengoen ba ni!
- d) Ez da hainbesterako izan!

50.-*Larramendi XVIII. mendean jaio zen; Unamuno, berriz ..., hau da, XIX.ean.*

- a) aurreko mendean jaio zen.
- b) datorren mendean jaio zen.
- c) mende bat barru jaio zen.
- d) hurrengo mendean jaio zen.

2. ARIKETA: IRAKURMENA

Testu hau arretaz irakurri eta ondoko galderei erantzun. Horretarako erantzun-orria erabili.

Hezkuntza berri baten bila

Martxoan aurkeztu zuten Gasteizen Garapenerako Hezkuntzaren Gida Didaktikoa. «Hegoa» Gobernuaz Kanpoko Elkarteak (GKE) eta José Angel Cuerdak egin zuten aurkezpena. Gida horiek Gasteizko Udalaren eta Europako Ekonomi Elkar-tearen laguntza dute. Arabako eskola eta ikastetxe publiko guztietan banatu dira, eta baita Gipuzkoa eta Bizkaiko batzuetan ere, 60 bat udaletxetan eta GKE batzuetan ere bai. Gida horiek gazteleraz daude, eta euskarazkoa —Bilboko Artez enpresak itzuli du— inprentan dago une honetan. Euskarazkoa urrian plazaratu nahi dute «Hegoa»koek, 300 ale guztira.

Hiru lagunen artean burutu dute gida hau: Juanjo eta Gema Celorio anai-arrebek eta Miguel Argibayk, hirurak Hegoako kideak. Hiru partaide hauek giza zientzietako testu-liburuak, Historia eta Geografia, ikertzen aritu ziren urte betez, eta konturatu ziren «garapenaren hezkuntza» oso liburu gutxik jorratzen zutela, eta jorratzen zutenean, oso gaizki gehienetan. Hezkuntzan, Erreformen, aipatzen da garapenaren hezkuntzan trebatu behar dutela ikasleek, herrialdeen arteko harremanetan, gizon-emakumeen artekoetan, ekologian, bakean, giza eskubideetan... ez bakarrik betiko gaietan. Baina, GKE honek adierazi digunez, irakasleek ez dute nahikoa informazio arlo honi buruz, eta, horrenbestez, ez dakite gaiari nola heldu, nola txertatu eskola-orduetan. Izan ere, testu-liburu gehienetan gai horiek ez dira ia azaltzen, edo zeharka aipatzen dira.

Hauek dira aurkitu zituzten akats nagusiak: informazio gehiegi, informazio hori interpretatzeko baliabide gutxi, eurozentrismoa eta mendebaldea dira eredu eta ardatz nagusi, emakumeak ez dira existitzen ia... Beste hutsegite batzuk ere ikusi dituzte ariketa didaktikoetan: «badirudi ikasleek egin behar duten gauza bakarra buruz ikasitakoa errepikatzea dela. Guk uste dugu ikasleak ez duela entzule soil izan behar. Ikasleak parte hartu behar du, eta aztertu, eta kritika egin. Ariketak ere badaude. Ikertzea edota dossierrak, elkarrizketak eta erakusketak egitea proposatzen zaio ikasleari. Beste helburu bat eskolako bizimodua eta kanpoko uztartzea izan da. Hau da, eskolan eta eskolatik kanpo ikasitakoa lotzea» esan digu Gema Celoriok.

Gida egiten hasi baino lehen beste urte betez aritu ziren hitzaldiak ematen, ikas-taroak, irakasleen kezkek entzuten; ihardunaldi batzuk ere burutu zituzten eta abar.

Guzti hori egin ondoren lau ataletan banatutako gida argitaratu dute: lehen atalak gizakiaren jarrerak lantzen ditu: enpatia, eramankortasuna eta elkartasuna. Hiru eduki horiek aztertzeke gai bat dute ardatz: Islam-a.

Bigarren atalak prozedurak lantzen ditu. Gai bat ulertzeko erabiltzen diren zenbait teknika. Adibidez, krisi ekonomikoa ulertu nahi duenak pausu batzuk eman beharko ditu. Hasteko, hipotesi bat izan beharko du, gero gaiari buruzko informazioa aurkitu eta informazio horren tratamendua aztertu. Ondoren analizatu egin beharko du eta sintesia egin, eta ondorio batzuk atera, eta azkenik, komunikatu. Beraz, hipotesiak nola egiten diren eta abar jakin behar du. Bigarren atal honen ardatza «Emakumeak eta Gizartea» da.

Hirugarren atala kontzeptuei buruzko edukiena da. Hauexek dira: interdependentzia, kolonialismoa, garapen/garapen-eza eta kultur aniztasuna. Atal honetan, Hego Afrika da gaia, Geografiari buruzko datuak azaltzen dira, ekonomikoak, historiari buruzkoak... Badirudi Hego Afrika urruti dagoela, baina, datuak interpretatuz, ikusten da egoera orokorrak baduela hango egoerarekin zerikusirik, eta alderantziz. Eta, esate baterako, galdera hau egiten da: Hego-Afrika garabidean dagoen herrialdea al da ? Edo lortua du garapena jadanik? «Beno, segun ze ikuspegi hartzen den. Azken batean nazio arteko harremanak zurien esku daude. Badirudi herri garatua dela, eta konturatzen zara garatugabeko herri askoren antzeko ezaugarriak dituela: jendearen %80a, era batera nahiz bestera, baztertua bizi dela, Brasilen edo beste toki askotan bezala; baina ez da esaten Hego-Afrika garatugabeko herrialdea denik» dio M. Argibayk.

Laugarren atalean, berriz, ebaluaketarako iradokizunak eta metodoak aztertzen dira, aurreko ataletako lanen emaitzak ebaluatzeko argibideak eskaintzen. Atal honetan, ebaluaketa kualitatiboa hobesten da, ez kuantitatiboa.

Hurrengo galderetan lau erantzunen artean zuzena aukeratu eta erantzun-orrian markatu.

51.-Non banatu dira gida horiek?

- Autonomi Elkarteko ikastetxe, udaletxe eta GKE guztietan banatu dira.
- Gasteizko ikastetxe guztietan banatu dira eta Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbaitetan ere bai.
- Arabako ikastetxe guztietan eta horrez gain beste 60 bat gida banatu dira Bizkaia eta Gipuzkoan.
- Arabako herri-ikastetxe guztiek; Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxe batzuek eta zenbait udaletxe eta GKEek jaso dute.

52.-Nola daude eginda gida horiek?

- Gidak gazteleraz eta euskaraz eginda daude, baina urrirarte ez dira argitaratuko.
- Gidak gazteleraz zein euskaraz eskura daitezke Bilboko Artez enpresari esker.
- Erdarazko gidak banatuta daude; euskarazkoak, ordea, urrian banatzea espero dute.
- Gaztelerazko gidak banatu dira eta euskarazkoak itzultzen ari dira.

53.-Nola egin dute lan gida hau egin dutenek?

- a) Giza zientzietako liburuak aztertu dituzte eta gaia ez dela tratatzen edo gaizki tratatzen dela ikusi dute.
- b) Giza zientzia liburuak aztertu ondoren, «garapenaren hezkuntzako» testuliburuak txarrak zirela ikusi dute.
- c) Historia eta Geografia liburuak aztertu ondoren testuliburu gutxi daudela ikusi dute.
- d) Giza zientzietako liburuak aztertzen aritu ondoren, oso liburu gutxi aztertzeke astia izan dute.

54.-Zer gertatzen zaie irakasleei gai honekin?

- a) Zenbait gai ezagutu arren, ez dakite gai horiek azaltzen.
- b) Nahiz eta informazioa eduki, ez dakite gaiari nola heldu.
- c) Nahikoa informazio badute, baina ez dute maite gai hauek azaltzea.
- d) Informazio eskasa dutenez, ezin diote gaiari ongi heldu.

55.-Zein dira testuliburuaren akats nagusiak?

- a) Ematen den informazioa gehiegizkoa da eta akatsez betea.
- b) Informazio gehiegi ematen da eta gure gizarteko ereduak agertzen dira gehien bat.
- c) Erabiltzen den ereduak europarra da.
- d) Emakumeak ez dira praktikoki agertzen.

56.-Zer dio G. Celoriok ikasleen jarrerari buruz?

- a) Ikasleek soilik entzuten dutena errepikatu behar dutela.
- b) Ikasleak entzule soilak izan behar direla ikasitakoa kritikatzeko.
- c) Ikasleek buruz ikasitakoa aztertu eta kritikatu egin behar dutela.
- d) Ikasleek entzuteaz gain, arazoa ikertu eta kolokan jarri behar dutela.

57.-Zer dio testuak bigarren atalari buruz?

- a) Gidak prozedurak jorratzen dituela zenbait teknika erabiltzen dituelarik.
- b) Hipotesiak behar direla informazioa aurkitzeko.
- c) Hipotesia analizatuta gero, sintesia lortu behar dela eta honen ondorioak komunikatu.
- d) Krisi ekonomikoa ulertzeko eman beharreko pausuak azaltzen ditu.

58.-Hego Afrikaren egoera dela eta, zer dio testuak?

- a) Emandako datuen arabera egoera orokorrak baduela zerikusia hangoarekin.
- b) Emandako datuen arabera Hego Afrika ez dagoela hain urrun.
- c) Ez dagoela datuei begiratu beharrik hango egoera ulertzeko.
- d) Datuak aztertzen direnean egoeren arteko harremana ondorioztatzen dela.

59.-Zer dio testuak Hego Afrikaren garapenari buruz?

- a) Garatua dela agintea zurien esku dagoelako.
- b) Herri atzeratua dela zentzu guztietan.
- c) Brasil bezalakoa dela, biztanleen %80a zokoratuta baitago.
- d) Zenbait datuen arabera ez duela oso garatua ematen.

60.-Garapenerako Hezkuntzaren Gida Didaktikoa...

- a) Zenbait eskola eta herritan banatu da Gasteizko Udalaren eta «Hegoa»ren diru-laguntza izan duelako. Gida horren egileek gai honi buruzko hutsunea ikusita ekin zioten lanari.
- b) Zenbait erakunderen laguntzaz argitaratu da eta ikastetxeetan banatu dute. Egileen esanetan «Garapenerako Hezkuntza» ez zen existitzen testuliburutik.
- c) Erakunde desberdinen laguntzaz sortu da eta hainbat tokitan banatu da. Egileek diotenez, gai honen inguruan zegoen informazio traketsa zuzendu nahi izan dute gida horren bidez.
- d) Gasteizko Udalak argitaratu du eta Araban zabaldu da. Gidaren egileek gai honen inguruko zalantzak konpondu nahi izan dituzte.

Proba hemen amaitzen da. Konproba itzazu erantzun-orrian ipini dituzun erantzunak eta NAN zenbakia ongi markatu duzun. Ez mugitu zure aulkitik denbora amaitu eta arduradunek azterketak jaso arte.

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE1
eredua: A

(Deialdi irekia)

2. PROBA

1994ko ekainaren 11a

<i>1. Deitura:</i>	<i>2. Deitura:</i>										
<i>Izena:</i>	<i>NAN:</i> <table border="1"><tr><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>										

OHARRAK

1. Konprobatu azterketa honek 7 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
2. Erantzuten hasi aurretik bete zure datuak.
3. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
4. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
5. Gelan ezin da erre.
6. Azterketa-material guztiak entregatu behar dira amaieran.

ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Ahozkoaren Ulermena, 2) Idazlan Laburra eta 3) Idazlan Luzea.
- Denbora: **bi ordu**.
- Proba hau gaitzen dutenak ahozkoa deituak izango dira.

AZTERTZAILEAK IRAKURTZEKO TESTUA

Hauxe da aztertzaileak irakurri behar zuen testua.

Kaixo lagunok:

ETBek aurtengo «*Telebista eta eskola*» kanpainari emango dio hasiera. Kanpaina hau apirilean eta maiatzean izango da.

Kanpaina honen bitartez telebista baten funtzionamendua erakutsi nahi diegu ikasleei. Horretarako Iurretan dugun egoitzara bisita bat egitera gonbidatzen zaituztegu. Bertara etorri gero, programa bat nola grabatzen den ikustez gain, azpiegitura ezagutu ahal izango duzue: zer langile motak lan egiten duen bertan, zeintzuk diren bakoitzaren zereginak, nola artxibatzen diren egindako programak, filmeak e.a.

Bisita orduak eta egunak honako hauek dira: asteleheneetik ostegunera goizeko bederatzietatik ordu batera bitartean.

Horrez gain, hala eskatzen duten ikastetxeetara joateko eta bertan grabazio bat egiteko prest gaude.

Beraz, etorri nahi baduzue, idatzi ETBra lehen bait lehen.

1. AHOZKOAREN ULERMENA

Orain testu bat irakurriko zaizu zenbait informaziorekin. Testua bi aldiz entzungo duzu. Zuk ondoko galdera hauei erantzun behar diezu.

1.-Nork antolatzen du kanpaina hori?

.....

.....

2.-Nola du izena kanpaina horrek?

.....

.....

3.-Iurretan egin daitezkeen bi ekintza aipatu:

.....

.....

4.-Zeintzuk dira Iurretara joateko egunak?

.....

.....

5.-Eta orduak?

.....

.....

2. IDAZLAN LABURRA

Idazlan honetan 90 hitz inguru idatzi behar dituzu.

Zu ikastetxeko talde bateko tutorea zara. Telebistakoek eskolari begira kanpaina bat antolatu dutela entzun duzu. Idatz ezazu gutun bat informazio gehiago eskatuz eta zure taldearekin joateko egun bat proposatuz. Horrez gain, eman ezazu zure taldeari buruzko informazio zehatza: maila, ikasle kopurua, euskara maila, ea. Era berean, zuri bereziki interesatuko litzaizukeena adieraz dezakezu. Eskutitz forma eman behar diozu idazlanari.

3. IDAZLAN LUZEA

Ondoko gaietatik **BAT AUKERATU** eta 200 hitz inguruko idazlana osatu behar duzu.

Datorren astelehenean hasita bi astez luzatuko den ikastaro bat egin behar duzu. Hori dela eta lurralde ordezkariak ordezeko bat jarriko dizu. Hala ere, ez duzu astirik izango harekin hitzegiteko eta **beharko duen informaziorik inportanteena idatziz ematea** erabaki duzu. Horretarako eskema bat egiten hasi zara. Hona hemen bururatu zaizun zenbait puntu:

- Klase-jardunak: arloak eta mailak.
- Ordutegia.
- Ikastaldearen (edo irakasleen) berezitasunak.
- Ikasle bereziren bat.
- Bi aste horietako zeregina.
- Materiala non.
- Non lor dezake laguntza.
- ...

EDO

Gaur goizean, zure ikasle den Iñigo Bastida Gorriaranen ama etorri da zurekin hitzegitera. Elkarrizketa horretan, Elizondora bizitzera joateko asmoa dutela azaldu dizu eta bertako eskolako zuzendariarekin hitzegin dutela. Geroxeago ikastetxe horren zuzendariak deitu dizu ohizko dokumentazioaz gain ikasle horri buruzko txosten bat eskatzeko. Hona hemen zuzendariak aipatu dizkizun zenbait puntu:

- Ikaslearen datu pertsonalak: Izen deiturak, ikasturtea, e.a.
- Ikaslearen familiako egoera: arazo edota egoera berezirik, hizkuntza.
- Nortasuna: izaera, zaletasunak, gustuko ekintzak, ...
- Eskola, irakasle eta ikaskideekiko jarrera.
- Ikasketa prozesua: zailtasunak, arazoak, euskara maila, ...
- Irakasleen aldetik gomendioren bat.
- ...

I.2 DEIALDI IREKIA: HE2ko AZTERKETA

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE2
eredua: A

1. PROBA

1994ko ekainaren 4a

<i>1. Deitura:</i>	<i>2. Deitura:</i>										
<i>Izena:</i>	<i>NAN:</i> <table border="1"><tr><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>										

OHARRAK

1. Atera ezazu suelto dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
2. Konprobatu azterketa honek 15 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik bete zure datuak eta erantzun-orrian eta koadernoan.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dira amaieran.

ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek bi ariketa ditu:
 - Aukera Anitzeko Galdekizunak 50 galdera ditu (50 puntu) eta
 - Irakurmenak 10 galdera ditu, bina puntu balio dutenak (20 puntu).
- Guztira 70 puntu dira. Proba gainditzeko **45 puntu lortu behar dira.**
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordu t'erdi.**
- Proba hau baztertzailea da.

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

Lau aukeren artean erantzun zuzena aukeratu eta ERANTZUN-ORRIAN markatu. Koaderno honetan EZ idatzi.

1.-Ez zeneukan zertan deitu! Aurkitu baliokidea.

- a) Ezin zenuen deitu.
- b) Ez zenuen telefonorik deitzeko.
- c) Ez zenuen deitu beharrik.
- d) Ez zenuen deitu nahi.

2.-Oporretan gurasoen baserrira joatekotan zarete. Zer esan dizue aitak?

- a) Oporretara abuztuan etorri ezean, etxean gera zaitezke.
- b) Oporretara abuztuan ez etorritz gero, etxean geratu beharko duzue.
- c) Oporretara abuztuan joaten bazinete, etxean geratu beharko zenukete.
- d) Oporretara abuztuan etorriko bazinate ere, etxean geratu beharko zenuten.

3.-Pertsona ezezaguna klasean sartu eta haurrak zalapartan hasten direnean hauxe esan genezake:

- a) Haurrak altxatu egin dira.
- b) Haurrak egoskortu egin dira.
- c) Haurrak lastu egin dira.
- d) Haurrak aztoratu egin dira.

4.-Gezurra esan nuen Getarian eta ... Osatu esaera zahar hau.

- a) nire aurretik zihoan bidaian.
- b) ni baino lehenago heldu zen etxera.
- c) segituan entzun zen Gernikan.
- d) ni baino lehenago zen atarian.

5.-Esaldi bakar bat da gramatikalki zuzena. Zein?

- a) Norekin ibili zarela galdetu dizu.
- b) Ez nekien nori galdetzen.
- c) Andereñoak ez du esan horrela egiteko.
- d) Amak alaba zuekin joatera nahi du.

6.-Zein da zuzena?

- a) Ez naiz zure beldur.
- b) Ez didazu beldurtzen.
- c) Ez daukat beldurrik zuregan.
- d) Ez zaitut beldurrik.

7.-*Ikusi duzun mahai hori txoko honetan sartuko da?*

- a) Ez dakit, 60 zentimetroko luze da.
- b) Ez dakit, 60 zentimetroko luzera dauka.
- c) Ez dakit, 60 zentimetroetako luzera dauka.
- d) Ez dakit, 60 zentimetrotako luzerakoa da.

8.-Sail berekoa ez den hitza bilatu.

- a) Arranoa.
- b) Mirua.
- c) Galeperra.
- d) Zapelaitza.

9.-Zein ez da zuzena?

- a) Hobe duzu etxera joatea.
- b) Hobe etxera joatea duzu.
- c) Etxera joaten bazara, hobeto.
- d) Ni, zure lekuan, etxera joango nintzateke.

10.-*Zer gertatzen da Idoia eta zure artean?*

- a) Elkarrekin gorroto ikaragarria dugula.
- b) Elkarrengana gorroto handia dugula.
- c) Elkar gorroto handia dugula.
- d) Elkarri gorroto handia diogula.

11.-*Ostirala ez beste astegunetan kanpoan izaten naiz.* Baliokidea aurkitu.

- a) Astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan kanpoan izaten naiz.
- b) Ostiral, larunbat eta igandeetan kanpoan izaten naiz.
- c) Ostiralean ez ezik beste astegun guztietan ere kanpoan izaten naiz.
- d) Ostiralaz landa, beste egun guztietan kanpoan izaten naiz.

12.-Aukeratu besteetatik sexuan bereizten dena.

- a) Aharia.
- b) Ahuntza.
- c) Behia.
- d) Behorra.

13.-Zein da zuzena eta egokia?

- a) Jaso dudan oparia polit baino politago zen.
- b) Zein eder den jaso dudan opari bat.
- c) Jaso dudan oparia polita oso da.
- d) Bai polita jaso dudan oparia!

14.- Zein dago **gaizki**?

- a) Idazlan horiek nire ikasleek egindakoak dira.
- b) Idazlan horiek nire ikasleek egin dituzte.
- c) Idazlan horiek nire ikasleek eginak dira.
- d) Idazlan horiek nire ikasleengatik eginak dira.

15.-*Galdera horri ez diot nik erantzun behar, ...*

- a) nork bere buruari egin behar dio lehendabizi.
- b) bakoitzaren buruarentzat da.
- c) denok geuren buruari egin behar diogu.
- d) denok geure buruei egin behar dizkiegu.

16.-Zein da zuzena?

- a) Berehala etorrarazi egin zion.
- b) Berehala etorri arazi zion.
- c) Berehala etorrarazi zuen.
- d) Berehala eratorri zuen.

17.-«*Behingoz bukatuko ahal du!*» esamoldearen parekoa zein da?

- a) Ezin du bukatu!
- b) Berehala buka dezake!
- c) Ojala bukatuko balu!
- d) Behin buka dezake!

18.-«Zubilanda» nazioko lehendakariak ihes egin du mila milioi dolar hartuta. Zein da erantzun desegokia?

- a) Esatea ere!
- b) Ez da izango!
- c) Benetan?
- d) Nora heldu behar dugu!

19.-Auzokoak butano-bonbona lapurtu zigun atzo. Banengoen bada ni! Zer esan nahi du azpimarratutakoak?

- a) Ni egon banintz ez zela gertatuko.
- b) Ni egon nintzela, baina ez nuela ezer egiterik izan.
- c) Susmoak nituela.
- d) Abisatu zenidala, baina ez nizula kasurik egin.

20.-Zein ez da sail berekoa?

- a) Uztarria.
- b) Burduntzalia.
- c) Pertza.
- d) Eltzea.

21.-Zer esan nahi du «Zuk lehengo lepotik burua» esamoldeak?

- a) Burua sano daukala.
- b) Pertsona argia dela.
- c) Burua tente duela beti.
- d) Berdin jarraitzen duela.

22.-Esaldi bakarrak dauka zentzua. Zeinek?

- a) Bi auto horiek gero eta handiagoak dira.
- b) Bi auto horiek zein baino zein azkarragoak dira.
- c) Autoa hainbat eta azkarragoa orduan eta hobe.
- d) Autoa gero eta azkarragoa orduan eta hobeto.

23.-Oso ondo ezagutzen dut bidea. ... , ezer ez gertatzea espero dut. Hutsunea bete.

- a) Izan ere
- b) Baina
- c) Hortaz
- d) Berariaz

24.-*Gureak egin du! Zer esan nahi du?*

- a) Gure nahia ez dela osorik bete.
- b) Konponezineko zoritxarra gertatu zaigula.
- c) Nahi genuen bezala gertatu direla gauzak.
- d) Guk nahi genuena egin dugula.

25.-*Zer entzun duzu mendizaleez?*

- a) Honez gero tontorrera iritsi zirela.
- b) Honez gero tontorrera iritsiko zirela.
- c) Jadanik tontorrera iritsiko zirela.
- d) Dagoeneko tontorrera iritsiko zirela.

26.-*Ez da atzo goizekoa horixe! Zer esan nahi du esaera honek?*

- a) Pertsona bat goizetik gauera asko aldatzen denean esaten da.
- b) Ikusten duguna, antza izan arren, aurreko egunekoa bera ez dela adierazteko esaten da.
- c) Norbait edo zerbait zaharra dela adierazteko esaten da.
- d) Gauza oso zaharra ez dela adierazteko erabiltzen da.

27.-Zein da **okerra**?

- a) A zer patxada duzun!
- b) Hori da patxada duzuna!
- c) Hori da patxada, hori!
- d) Hori da patxada duzula!

28.-Zein da zuzena?

- a) Ezetz zuk ni baino lehenago egin!
- b) Ezetz egiten duzula nik baino lehenago!
- c) Ezetz egin nik baino lehenago!
- d) Ezetz ni baino lehenago egiterik izan!

29.-Zein da zuzena?

- a) Elkar ikusi bagenu, agur esango nizun.
- b) Elkar ikusiko bagenu, agur esango nizun.
- c) Elkar ikusi bagenu, agur esango nizuke.
- d) Elkar ikusiko bagenu, agur esango nizukeen.

30.-Adieraz ezazu sailekoa ez den hitza.

- a) Alferra.
- b) Golkoa.
- c) Nagia.
- d) Utzia.

31.-«*Ez egin, gero*» esamoldeak zer adierazi nahi du?

- a) Gerorako ez utzi.
- b) Lehenbaitlehen egin.
- c) Etzazula egin.
- d) Orain ez; gero egingo duzu.

32.-... *adiskidetasun handia dugu.*

- a) Elkarren
- b) Elkar
- c) Zuk eta biok
- d) Elkarrik

33.-Sekula ez da isiltzen, ez behar denean, ez behar ez denean. Beraz, ...

- a) mintzalari bat da.
- b) mintzazalea da.
- c) aho-itxi eduki ezinekoa da.
- d) hitzontzi bat da.

34.-*Irakasle berria aldarte oneko emakumea da. Zer esan nahi du?*

- a) Emakume jakintsua dela.
- b) Borondate onez jokatzeko duela.
- c) Umore onekoa dela.
- d) Aldakorra dela.

35.-*Zer esan zizueten lagunek?*

- a) Beste gauza batzuen artean ere, berandu etorriko zirela esan ziguten.
- b) Beste gauza batzuen artean, berandu etorriko zirela ere esan ziguten.
- c) Beste gauza batzuen artean, baita berandu etorriko zirela esan ziguten.
- d) Beste gauza batzuen artean, berandu etorriko zirela esan ziguten ere.

36.-Esaldi bakar bat da gramatikalki zuzena. Zein?

- a) Egun horretan denok generamatzan txapela.
- b) Kontu horiek zuek ederki zenkizkizuen.
- c) Amak egia baleki, gurekin haserretuko litzateke.
- d) Zuek gustura zeundeke, lagunak oporretan baleude.

37.-Aukera ezazu honen parekoa: *Nahi duzuna esaten badidazu ere, ez dizut jaramonik egingo.*

- a) Zuk nahi duzuna esango didazu. Hala ere, ez dizut jaramonik egingo.
- b) Nahi duzuna esango didazunagatik, nik ez dizut jaramonik egingo.
- c) Nahi duzuna esatearren, ez dizut jaramonik egingo.
- d) Nahi duzuna esaten badidazu, jaramon egingo dizut.

38.-*Haserre nago Josebarekin, alfer horrek ...*

- a) lan guztia inoren bizkar gainean uzten duelako.
- b) lan guztia bestean bizkar uzten duelako.
- c) inoren bizkarretik egiten duelako lan.
- d) lanak inoren gainera botatzen dituelako.

39.-Aukera ezazu sailekoa ez den hitza

- a) Lana.
- b) Zeregina.
- c) Laborea.
- d) Beharra.

40.-*Noiz iritsiko dira Argentinako lehengusu-lehengusinak?*

- a) Hemendik hiru hilabetera.
- b) Hiru hilabeteren barru iritsiko dira.
- c) Hiru hil barru.
- d) Hurrengo hilabetean iritsiko dira.

41.-Zein da ortografia zuzena?

- a) Institututik unibertsitatera gero eta ikasle gehiago doa.
- b) Institutotik unibertsitatera gero eta ikasle gehiago doa.
- c) Institutotik unibersitatera gero eta ikasle gehiago doa.
- d) Institututik unibersitatera gero eta ikasle gehiago doa.

42.-Zein da zuzena?

- a) Loteria tokatuko balitzait, zerbait emango nizun.
- b) Loteria tokatu balitzait, zerbait emango nizuke.
- c) Loteria tokatuko balitzait, zerbait emango nizukeen.
- d) Loteria tokatu balitzait, zerbait emango nizun.

43.-Batere pentsatu eta ezertan erreparatu gabe ibiltzen denari ...

- a) kaskarina dela esaten zaio.
- b) gautxoria deritzo.
- c) kazkabarra esaten zaio.
- d) baldarra deitzen zaio.

44.-Aitaren batean egin zuen. Aurkitu baliokidea.

- a) Aitaren papera egin zuen haur-jolasetan.
- b) Azkar-azkar egin zuen.
- c) Ume txikia besoetan hartu zuen.
- d) Gurutze Santuaren seinalea egin zuen.

45.-Orain azalduko dugu ... zenbait kasu.

- a) botikak gaizki erabiltzen direlaren
- b) botikak gaizki erabiltzen direnaren
- c) botikak gaizki erabiltzen diren
- d) botikak gaizki erabiltzen direla

46.-*Erregina, erlauntzara itzultzen den bezain laster, arrautzak egiten hasten da eta hori izango da bere bizitza guztiko ...* Aukeratu hitz egokia.

- a) ezbeharra
- b) zoria
- c) topagunea
- d) aisia

47.-*Zerbaitengatik ... atzeratuko balitz, dekretuak ez luke balio izango.* Hutsunea bete.

- a) hamabost egun baino gehiago
- b) hamabost egun baino gehiagotan
- c) hamabost baino gehiago egunez
- d) hamabosta baino beranduago

48.-*Tenisean, jokalariak zelaiaren alde ... jartzen dira. Aukeratu egokiena.*

- a) batean
- b) bakoitzean
- c) banatan
- d) bitan

49.-Zein da zuzena?

- a) 1961eko ekainaren 10ean jaio zen.
- b) 1961. garreneko ekainaren 10ean jaio zen.
- c) 1961eko ekainak 10ean jaio zen.
- d) 1961.ean ekainaren 10ean jaio zen.

50.-*Bizitza aurrera aterako badugu, ... bidea lan egitea dugu.*

- a) gurarizko
- b) aukerazko
- c) nahitaezko
- d) egokizko

2. ARIKETA: IRAKURMENA

Gerentzi funtzioaren garapena

Hezkuntzako gerentzi funtzioaren garapena ikerketarako eremu interesgarria da. Behatzaile batek ikusarazi du beronen garapena nola aldatzen den nazio batetik bestera, eta nazio bakoitzean bertako kultur balioei eta *per se* hezkuntza-garapenei nola dagoen loturik. Behatzaile honek nire herrialdeko hezkuntza-administrazioa profesio gain-garatutzat jo du eta beste toki batzuetan maila ezberdinetan garaturik aurki daitekeela erakutsi du, zenbait herrialdetan azpi-garaturik ere bai. Hau guztia oso ongi dago, eta interesgarria gertatzen da hezkuntza-administrazioaren ikertzailerentzat, baina guk gaur honetaz dugun interesa praktikoagoa da. (Baina agian gehiegi garaturik dagoen herrialde batetik natorrela jakin dezazuen nahi dut!).

Lehenagoko garaietan, bizitza eta instrukzioa sinpleagoak zirenean, bat, bi edo hiru irakasleko eskolek ez zuten zuzendaririk ez inolako buruzagirik. Populazioaren edo populazioguneen hazkundeak eskolen eta hezkuntza-funtzioaren tamainaren hazkundera eramán gaitu. Une jakin batean, irakasle-buruzagi nozioa gauza normal bihurtu zen gehiengoarentzat; eta ondorioz, eta bitarteko batzuekin, eskola-buruzagi profesionala sortu zen. Gero eta handiagoak ziren eskoletan eskola-buruzagiek sarritan aurkitzen zuten zuzendaritzak eta irakaskuntzaren eskakizunak gehiegizko zama zutela, eta hortik etorri zen zenbait eskola-buruzagi irakas-betekizun batzuetatik arintzea, beren zuzendaritza-betekizuna behar bezala burutu ahal izan zezaten. Tamaina eta konplexutasun handiagoeekin, dedikazio osoko eskolaburua sortu zen, eta nahiz halako egoeratan aurkitzen zirenen erantzukizunek gama zabala erakusten duten (koordinatzaile arin eta gutxi-asko kolegiala izatetik hasi eta beste batzuetan dagoen gerentzi lidergo ahalguztidunaren betekizuna izateraino) postua toki guztietan onartua izan da. Jakina, betekizunak zer-nolakoa izan behar duen edo beharko lukeen eztabaida biziko gaia da irakasle, eskolaburu, hiritar, eskola-kontseilari eta hezkuntza-departamenduen artean nonahi. (Eta ez dugu gaur hemen konpontzerik lortuko!).

Hala eta guztiz ere, uste dut gehiengo ados egongo dela eskolaburu edo zuzendariak eskolentzako beharrezko edo funtsezkoak diren funtzioak betetzen dituztela esatean, berauek egon ezik beteko ez lirakeenak. Gainera, eskolen tamaina gero eta handiagoarekin eta hezkuntzak aro teknologiko modernoan duen konplexutasunarekin, sarritan eskolaburuei zuzendaritza-, exekuzio-, gerentzi edo lidergo-egitekoa soilik burutzeko eskatzen zaie, eta hauek argiro ezberdinak dira irakaskuntzan eta ikasleekin egin behar den lanaren aldean. Eskola-zuzendariaren egitekoa edozein tamainatako eskoletan besteen bitartez lan egitearena da, ahalik eta hezkuntza hoberena eskuratzen saiatuz, hezkuntza-enpresa eta hezkuntza-pertsonala kudeatuz, antolatuz eta zuzenduz.

Laburbilduma txiki hau zuzena eta zehatza den neurrian, bi gauza begibistako gertatzen dira. Lehena, eskolak zuzentzen dituzten pertsonak behar bezalako autoritatez eta erantzukizunez hornitu beharko lirakeela beren kargupean dituzten eskolak kudeatzeko eta zuzentzeko. Bigarren, zuzentzeak edo kudeatzeak trebetasunak —eta trebetasun profesionalak— eskatzen dituen gero, hurrekin lan egiteko behar

direnak ez bezalakoak, hain zuzen ere, beharrezko da gaitzea gerentzi trebetasun horiek landu eta garatzeko. Urteetan zehar esperientziari esker zerbait ikasi baldin badugu, zera izan da: inor ez dela gerente edo gidari eraginkor bihurtzen postu horretarako hautatua izate edo onartze hutsez.

Orain beste arazo hau ere planteiatzen da: igartzen al zaio gerente on eta txarraren arteko aldeari? Erantzuna hauxe da: esperientziaz bai, eta ikerketaz ere bai! Aski da apur bat pentsatzea gerente edo gidari guztiek eraginkortasun bera ez dutelako ondorioa iristeko. Beraz, horrek esan nahi du badaudela trebetasun, gaitasun eta jarrerak gerente batzuk besteak baino hobeak izatea eragiten dutenak. Hala ere, arazorik korapilotsuena honako hau da: trebatu al liteke gerente edo gidaririk? Puntu honetan dauden testigantzak ezberdin samarrak dira. Baina nahi bezalako fruituak beti lortu ez arren, halako trebatze bat edota disponibilitate bat ezereza baino hobe da noski. Zeren eta hartaz baliatzen direnak gerente hobeak izango baitira. Eta erangikorrak ez direnak gerentziatik baztertu egin beharko dira.

Azkenik, puntu honetaz bakoitzak izan lezakeen jarreraz aparte, hezkuntza pertsonen arteko antolamendu konplexua da. Eskola-zuzendariak gizakien bidez eta gizakiekin egiten du lan, ez makina eta izaki fisikoekin. Agian ez al du merezi trebakuntza eta garapenik gerentzi eta lidergo-gaitasun berezian pertsonentzat eta pertsonekin lan egiten duenak? Eta agian ez al luke zuzendaritza eraginkor bat burutzeko autoritatearen eta erantzukizunaren jabe izan behar? Ni neu baiezkoan nago.

Amaitzeko, argi dago eskola baten zuzendaritzak gaitasun bereziak eskatzen dituela, irakasle onak behar dituen gaitasunak ez direnak. Ez da soilik ezinbestekoa gaitasun hauek zuzendarien baitan garatzea eta segurtatzea, baizik eta garrantzizkoa da, halaber, eskola-zuzendariak inolako trabarik ez izatea ikastetxeen kudeaketa eta zuzendaritzan. Jakina, ez dago esan beharrik eskola-zuzendariak kontuak eman behar dituztela antolamendu, funtzionamendu eta eskolaren errendimendu guztiez, eta arduratsu bete behar dituztela beren egiteko guztiak.

Glenn L. Immegart. Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua. Eusko Jaurlaritza, 1990 (moldatua)

Lau aukeren artean erantzun zuzena aukeratu eta erantzun-orrian markatu.

51.-Zeren garapena da hemen aztergai?

- a) Behatzailearena.
- b) Herrialdearena.
- c) Eginkizun batena.
- d) Ikasketarena.

52.-Zeri helduko dio egileak artikulua honetan?

- a) Hezkuntza-administrazioari oro har.
- b) Herrialdeen garapen-maila eta bere ondorioei.
- c) Ikertzailearen eginkizuna zehazteari.
- d) Hezkuntza-arloko gai mugatu bati.

53.-Eskola-buruzagiaren sorreran hauetariko faktore batek ez du eraginik izan. Zeinek?

- a) Bizimoduaren eta instrukzioaren konplexutasunak.
- b) Hezkuntza-funtzioaren garapenak.
- c) Irakaslegoaren jarrerak.
- d) Eskolaren beraren hazkundeak.

54.-Zer dio zuzendaritzaren eta irakaslanaren arteko harremanez?

- a) Praktikan erabat bereiztuz joan direla.
- b) Bi eginkizunok ez bereiztearen aldekoa dela.
- c) Dedikazio osoko zuzendaria gaitzesten duela.
- d) Erabat zuzendaritzari emana hobesten duela.

55.-Zuzendariaren betekizunaz, zein da zuzena?

- a) Erabateko adostasuna dago.
- b) Bizitza guztiko eztabaida da.
- c) Zuzendariak berak jakin badaki.
- d) Hezkuntzaren munduan ez dago iritzi bateraturik.

56.-Laugarren pasartean («*Laburbilduma ...*») zer esaten da?

- a) Emandako azalpena zuzena eta zehatza bada, eskola-zuzendariak autoritate egokia behar dutela izan kargura iristeko.
- b) Egindako laburbilduma zuzena eta zehatza bada, erantzukizunez hornitutako pertsonak behar dutela izan zuzendari izateko.
- c) Eskolak zuzentzeko eta kudeatzeko behar bezalako autoritatez eta erantzukizunez hornitu behar direla lan horretarako pertsonak.
- d) Beren kargupeko eskolek agintea eta erantzukizuna duten zuzendariak behar dituztela.

57.-Treatu al liteke gerente edo gidaririk?

- a) Jendea ez dago ados, baina hale ere, fruituak ez dira beti lortzen.
- b) Ez dago argi, baina gerente eraginkorrek ez direnak baztertu egin beharko dira.
- c) Beti eraginkorrek izan ez arren, treatze-saioak ezereza baino hobeak dira, zeren eta hartaz baliatzen direnek gutxienez disponibilitate bat izango baitute.
- d) Fruitu egokiak beti lortzen ez badira ere, treatze-aktibitatearen bat izatea, ez izatea baino hobe da. Izan ere, treatze-saioak egindakoak gerente hobeak izango dira edo, bestela, gerentziatik baztertu egin beharko dira.

58.-«Azkenik, puntu ...» esanez hasten den pasartean, besteak beste zera adierazten da:

- a) Baten batek besterik iritziko balio ere, hezkuntza pertsonen arteko antolamendu konplexua dela.
- b) Hezkuntza pertsonen arteko antolamendu konplexua denez, eskola-zuzendariak gizakien bitartez lan egiten duela.
- c) Zuzendaritzaz eta zuzendarien trebakuntzaz bakoitzak izan litzakeen jarrerak gora behera, hezkuntza pertsonen arteko antolamendu konplexua dela.
- d) Arazo honetaz bakoitzak izan lezakeen jarrerak ez duela hezkuntza pertsonen arteko antolamendu konplexu bihurtzen.

59.-Pasarte honetan bertan zein iritzi ematen du autoreak?

- a) Zuzendaritzak profesionala izan beharko lukeela.
- b) Eskola-zuzendariak gizakiekin lan egiten duenez eta ez makinekin, trebakuntza behar duela autoritate eta erantzukizuna izan ahal izateko.
- c) Gerentzi eta lidergo-gaitasunari ez besteri zuzendutako formazioa merezi duela eskola-zuzendariak.
- d) Gerentzi- eta lidergo-gaitasun berezietarako propio pentsatutako trebakuntza behar duela eskola-zuzendariak bezala gizakiekin eta gizakien bitartez lan egiten duenak.

60.-Azken pasartean («Amaitzeko...») zer esaten da?

- a) Eskola-zuzendariak eskolaren funtzionamenduaz kontuak eman behar dituzten arren, ikastetxeen kudeaketa eta zuzendaritzan trabarik ez izatea garrantzizkoa dela.
- b) Eskola-zuzendariak trebakuntza izan badute, ez luketela trabarik izan behar.
- c) Jakina dela zuzendariak lan guztiak arduratsu betetzen dituztela.
- d) Zuzendaritzak, irakaslea on bihurtzen duenez, gaitasun bereziak eskatzen dituela.

Proba hemen amaitzen da. Konproba itzazu erantzun-orrian ipini dituzun erantzunak eta NAN zenbakia ongi markatu duzun. Ez mugitu zure aulkitik denbora amaitu eta arduradunek azterketak jaso arte.

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE2

(Deialdi irekia)

1. PROBA

1994ko ekainaren 4a

<i>1. Deitura:</i>	<i>2. Deitura:</i>										
<i>Izena:</i>	<i>NAN:</i> <table border="1"><tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr></table>										

OHARRAK

1. Konprobatu azterketa honek **8** orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
2. Erantzuten hasi aurretik bete zure datuak.
3. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
4. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
5. Gelan ezin da erre.
6. Azterketa-material guztiak entregatu behar dira amaieran.

ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek bi ariketa ditu: Idazlan Laburra eta Idazlan Luzea.
- Denbora: **bi ordu**.
- 2. proba hau 1. proba gainditu dutenei bakarrik zuzenduko zaie.
- Proba hau baztertzaila da.

1. IDAZLAN LABURRA

Idazlan hau egiteko, behean agertzen zaizun egoerari erantzun behar diozu modu diskurtsiboan. 200 hitz inguru idatzi behar dituzu.

Eskoletan beti antolatu dira, ohizko emanaldiez gain, zenbait ekintza berezi: Gabonen inguruko ospakizunak (Olentzerorena, adibidez), Ihauteriak, «aste zuria» (elurretara), euskararen eguna e.a.

Horrez gain, beren gaia era eragingarriagoan eskaintzeko asmotan, irakasleek betidanik antolatu izan dituzte ekintza bereziak: bidaiak, erakusketak edota lantegiak bisitatzea e.a.

Ekintza hauen aurrean gurasoek jarrera **eszeptiko samarra** adierazten dute. Jarrera hori aldatzeko asmoz, zure ardurapean dauden ikasleen gurasoei gutun bat idaztea erabaki duzu. Bertan, honako hau azalduko diezu:

- Ikastetxearen ekintza bereziak: noiz, helburuak, ondorioak etab.
- Zuk zeuk antolatutako ekintzak: noiz, helburuak, ondorioak etab.
- Gurasoen jarrera, laguntza.
- ...

2. IDAZLAN LUZEA

Herri-aldizkari baterako artikulua bat eskatu dizute hezkuntzaren inguruan. Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta garatu. 400 hitz inguru idatzi behar dituzu.

Kalitatezko ikastetxea, kalitatezko irakaskuntza. Ikastetxe guztien helburu dira horiek, baina kontzeptu zehazgabea izaten da askotan. Nahi baduzu, honako puntu hauek uki ditzakezu:

Zeintzuk dira kalitatearen ezaugarriak?

- Zerk ematen dio kalitate-ospea ikastetxeari?
- Ospea eta kalitatea bat ote datoz beti?
- Ezagutzen dituzun ikastetxeak kalitatezkoak al dira?
- ...

EDO

Irakaskuntzaren berrikuntza. Sarritan hitz egiten da hezkuntzaren eta irakaskuntzaren berrikuntza, aldaketa eta erreformari buruz. Nahi baduzu, honako puntu hauek uki ditzakezu:

- Zeu ikasle izan zinenetik hainbeste aldatu da eskola?
- Zein arlotan izan dira aldaketarik nabarienak?
- Onerako izan dira?
- Zer ez da aldatu?
- Zerk aldatu beharko luke, zure iritziz?
- ...

II. 1994ko LEHEN DEIALDI ITXIA

II.1 LEHEN DEIALDI ITXIA: HE1eko AZTERKETA

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE1
eredua: A

IDATZIZKO PROBA

1994ko otsailaren 7a

<i>1. Deitura:</i>	<i>2. Deitura:</i>									
<i>Izena:</i>	<i>NAN:</i> <table border="1"><tr><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>									

OHARRAK

1. Konprobatu azterketa honek 9 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
2. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
3. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
4. Azterketa-materialak entregatu egin behar dira irten baino lehen.

AHOZKOAREN ULERMENA

OHARRA: Azterketa-egunean *Euskadi Irratitik* grabatutako elkarrizketa baten grabazioa erabili zen. Jarraian grabazio haren transkribaketa ematen da ondoren datozen galderak uler daitezzen.

Ingurugiroari buruzko tesia

- J.: Gu izan, kuriosoak gara. Hori gure entzuleek ondo asko badakite.
- A.: Eta «*Goizean behin*» gauza askori buruz enteratu izan gara. Guk galdetu eta jakin, galdetu kuriosidadeak hala aginduta.
- J.: Baina egia esan behar bada, orain arte sekula oso ondo ezagutu ez duguna doktore izateko prozesua zein den.
- A.: Alegia, behin unibertsitateko karrera amaitu ondoren, zer egin behar den doktore izen handi hori jasotzeko.
- J.: Eta entzule guztiok jakin dezazuen Rosa Arburua atzoz geroztik, bera doktore da, pedagogian doktore. Bai, ezta?
- R.: Bai, bai, hori da.
- J.: Eta horregatik esan dizugu zorionak, atzoko partez.
- R.: Ba, mila esker, berriro ere.
- J.: Eta guk orain, zorionak musutrukean ez ditugu ematen eta jakin nahi duguna da doktore izateko zer egin behar den, zer prozesu jarraitu behar den.
- R.: Beno, ba, esan duzuen bezala lehendabizi lizenziatura egin behar da. Ni pedagogian lizenziatuta nago orain dela urteak. Eta gero egin behar dena da doktoradutza ikastaro batzuk edo doktoradutza prozesu bat bete, orduan doktoradutza honetan kreditu batzuk daude, gai batzuk ematen dira, gai bakoitzean hainbat kreditu (edo puntu, nahi baduzue) daude eta puntu horiek lortu ondoren edo lortu bitartean, tesi bat, gai bati buruzko tesi bat preparatzen da.
- A.: Rosa, alto, alto!. Puntuak, kredituak, pagatuz lortzen al dira?
- R.: Nola?
- A.: Puntuak, kredituak esan duzu lortu behar direla.
- R.: Bai.
- A.: Pagatuz?
- R.: Bai, beno, pagatuz, noski, hori da matrikula bat bezala. Matrikula irekitzen duzu, urte beteko matrikula edo gai bakoitzerako matrikula irekitzen da eta bai, hori ordaindu egiten da, bai. Eta gero, esan bezala, hori, tesia preparatzen hasten zara. Gai bati buruz, zuri gustatzen zaizun gai bati buruz hasten zara preparatzen eta azkenean zuzendari bat eukitzen da. Bere eginkizuna, izenak dioen bezala, zuzentzea da, tesia zuzentzea da. Berak baimena edo ematen dizunean edo ikusten duenean tesi hori bukatutzat jo dezakeela, presentatu egiten da. Orduan, beno, bitartean, badaude hainbeste papeleo eta burokrazi

egin beharrak, noski. Baina gero egun bat iristen da tribunal bat biltzen da; hori atzo izan zen eta kanpoko doktore eta irakasleak etortzen dira; Euskalerriko unibertsitatekoak ere badaude. Tribunalala osatzen da eta hantxe tesiaren irakurketa, adierazpena eta bere defentsa egiten da. Orduan, lehendabizi izaten da... Ordubetez hitzegin beharra, tesia zergatikan, zer helburu dituen, nola joan den eta zer edukin dituen. Hori ondo adierazita eta gero, tribunaleko irakasle bakoitzak egiten ditu bere oharrak, edo berari zer iruditzen zaion eta gero kritika bat eta baita ere galderak, gero ere berriro nere turnoa eta defentsa egitea eta erantzutea, galdera horiei erantzutea. Eta bukatzeko berriro biltzen dira, beraiek biltzen dira eta erabakitzen dute onartzen duten tesia, hau da doktore titulua emango didaten ala ez. Eta beno, nire kasuan eman zidaten eta hara!

J.: Horrela esanda, ez dirudi beste munduko gauza denik hori.

R.: Beste munduko gauza, bizi honetan badaude gauza inportanteagoak, noski. Baina, bai dela prozedura luze bat, hori bai, urtetako prozedura bat.

J.: Urtetako esan duzu? Tesia egiteko zenbat denbora behar da, ba?

R.: Bai, bai, noski, urtetako prozedura da, dudarik gabe. Ni gai honekin hasi nintzen, beno, ez tesiarekin, baina gai honekin orain dela hamabi urte, gaia-ekin, eta gero noski, gero egin nuen egin beharreko guztia. Eta tesia bera osatzeko lau bat urte, bai. Baina lehenagotik asko irakurriz, bidaiatuz eta horrelako gauzak eginez, gustora.

J.: Beraz, guk guzti hori eginda daukagu, asko irakurri —izugarri irakurtzen dugu—, bidaia asko egin ditugu, beraz orain lau urteren buruan egin genezake tesi bat.

R.: Hori bada, zuek animatu eta aurrera!

J.: Aizu, esan dugu zuk pedagogia ikasi zenuela; eta zure tesia zeri buruzkoa izan da?

R.: Beno, nire tesia izan da inguruari buruzkoa, baina ingurugiroa eta hezkuntza; «educación ambiental» deritzan horri buruz. Nahi baduzue irakurriko dizuet titulua. Erdaraz dago.

J.: Eskerrak titulua esan duzun! Irakurriko dizuet esan duzunean...

A.: Beldurtu gara...

J.: Pentsatu, pentsatu dugu, akaso tesi osoa irakurri nahiko zenuela.

R.: Ez, ez da unerik egokiena orain.

J.: Ez, ez. Izenburua esaiguzu.

R.: Izenburua da beraz: «*Educación ambiental y medio ambiente: propuestas didácticas para una educación hacia el reciclaje*». Ni berziklaia mundu honetan sartuta nago, konbentziturik gainera.

J.: Gazteleraz egin duzu zuk tesia?

R.: Bai, gazteleraz. Hasieran pentsatu nuen euskaraz eta erdaraz egitea, baina ateratzen zen sekulako txostena, eta gehiegi, gehiegizkoa. Zati bat bai daukadala euskeraz egina.

A.: Zenbat folio ditu, kuriosidadez?

R.: Itxoin, ia ...

- A.: Ez al dakizu memoriaz, Rosa?
- R.: Ez, ez, hara ez. Hirurehun eta hogeita bost. Paper birziklatuaz egina.
- J.: Ah!, hori galdetzera gindoazen; hori galdetu behar genizun oraintxe bertan, alegia, nola egin ote zenuen, zein paperetan egin ote zenuen?
- R.: Bai, ba uste dut gainera, lehenengoa izango dela paper birziklatuaz publikatzen dena, eta bai ziur esan dezaket Ingurugiro Hezkuntzari buruzko, komunitatean, lehenengo tesia dela, hori bai; eta horregatik ere nahiko harro nago; zer nahi duzu esatea?

AHOZKOAREN ULERMENA

GALDERAK

1.-Zer da aurkezleek ez dakitena?

- a) Zer egiten den behin unibertsitateko ikasketak bukatu ondoren.
- b) Zer egin behar den ikasketen ondoren izen handia lortzeko.
- c) Zer egin behar den doktoradutza lortzeko.
- d) Zein den doktoreek egin behar duten bidea.

2.-Zein da Rosa Arburua?

- a) Atzoko programan Pedagogia doktoradutzaz aritu zena.
- b) Irrati programaren aurkezlea.
- c) Aurreko egunean urteak betetzeagatik zoriondu dutena.
- d) Pedagogian doktoradutza lortu berria duena.

3.-Zer egin behar da doktore izateko?

- a) Lehendabizi Pedagogian lizentziatua izan.
- b) Doktoradutza-prozesua lizentziatua izanez gero egin daiteke.
- c) Doktoradutza ikastaroak egitearekin aski da.
- d) Matrikula ordaindu ondoren lor daiteke.

4.-Zer egiten da doktoradutza ikastaroan?

- a) Tesia egiteaz gain, asignatura batzuren bidez kredituak lortu behar dira.
- b) Puntu eta kredituez gain, gai batzuk eta tesi bat egin behar dira.
- c) Tesi bat egiten da zenbait puntu eta kreditu lortzeko.
- d) Puntuak eta kredituak pilatu.

5.-Zein da zuzendariaren lana tesian?

- a) Bukaerako akatsak zuzentzea.
- b) Besteak beste, burokrazia eta papeleo arazoak konpontzea.
- c) Tesia zuzentzea eta baimenak lortzea.
- d) Tesia noiz buka daitekeen erabakitzeaz gain, zuzendu ere egiten du.

6.-Zeintzuk osatu ohi dute doktoradutzarako tribunalala?

- a) Kanpoko zenbait doktore eta irakasle.
- b) Kanpoko eta bertako zenbait irakasle eta doktorek.
- c) Kanpoko zenbait irakaslek eta bertako doktoreek.
- d) Euskal Herriko doktoreek eta kanpoko zenbait doktore eta irakaslek.

7.-Nolako defentsa egin behar da tribunalaren aurrean?

- a) Ordubeteko saioa izaten da gutxi-gorabehera.
- b) Tesiaren nondik-norakoen azalpena eta tribunalkideen galdera eta oharrei erantzutea.
- c) Norberaren iritziak eman ondoren, bestiek horretaz pentsatzen dutena entzutea dator.
- d) Norbere buruaren defentsa gogorra egin behar da.

8.-Zenbat denbora behar izan du Rosa Arburuak bere gaia garatzeko doktoradutza lortu arte?

- a) 4 urte.
- b) 16 urte.
- c) 12 urte.
- d) 8 urte.

9.-Aurkezleak lau urteren buruan tesia egin dezakeela esaten du, zergatik?

- a) Hori ez delako beste munduko gauza.
- b) Bidaiatzea eta irakurtzea asko gustatzen zaiolako.
- c) Rosa Arburuak horretara animatzen duelako.
- d) Dagoeneko asko irakurri eta bidaiatu duelako.

10.-Zer gertatu da Rosak bere tesiaren izenburua irakurri behar zuenean?

- a) Aurkezleek broma bat egiteko aprobetxatu dutela.
- b) Aurkezleei luzea eta farregarria iruditu zaiela.
- c) Aurkezleek zalantzan jarri dutela irakurtzearen egokitasuna.
- d) Rosak zalantzan jarri duela irakurtzearen egokitasuna.

11.-Nola burutu du bere tesia Rosa Arburuak?

- a) Euskaraz egiteko asmoa bazuen ere, hurrengo baterako utzi du.
- b) Zatiren bat euskaratua duen arren, gazteleraz egin du.
- c) Erdara hutsean egin du eta damu da.
- d) Euskaraz eta erdaraz egin du, pentsatuta zuen bezala.

12.-Zer esaten du egileak bere tesiaren luzeraz?

- a) Oso ongi gogoratzen duela eta 325 orrialde dituela.
- b) Zalantzak ditu, baina uste du 335 orrialde dituela.
- c) Begiratu ondoren, 325 orrialde dituela esaten du.
- d) Ez du buruz gogoratzen eta ezin du esan zein den luzera

ERANTZUNAK

1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12

IRAKURMENA

Zakarra

Munduaren parterik handienak oinarrizko jakirik ez duen bitartean, mendebaldeko gure gizarte aberatsek jaki gehiegi produzitzeaz gain, zakar gehiegi ere produzitzen dute. Izan ere, gure kontsumo gizarte honetan saltzen duguna normalean ez da produktua bera, bere itxura baizik. Diseinua da jaun eta jabe gure dendetan eta produktu batek zenbat eta itxura erakargarriagoa izan, hainbat eta salmenta handiagoa edukiko du. Berdin zaigu, esate baterako, dentifriko batek nolako kalitatea duen. Seguraski bere kajaren kolorearen arabera aukeratuko baitugu dentifriko bat edo bestea, gainontzeko guztiak baztertuz. Izan ere, orain arte fabrikatzaileak bere produktuak saldu eta etekina atera ondoren, ez ziren arduratzen produktu horiek saltzeko erabilitako kaja, plastiko edo poltsez. Bost axola, beraz, zer gertatzen zen kaja guzti horiekin, hustu eta bota beharreko botilekin, plastikoekin eta abar. Jarrera eta ideologia kontsumista honen ondorioak mugimendu ekologistak azaleratu ditu. Gaur egun hainbeste zakarren artean itotzen ari gara. Ez dakigu zer egin zakarrontzira botatzen dugun guzti horrekin.

Alemanian aurrerapausu handiak egin dira zakarraren aurkako burrukan. Papera eta kristala aspaldi birziklatzeaz eta zakar organikoa aparte biltzeaz gain, orain dela urte batzuk gobernu kontserbatzaileak plastikoaren birziklatzeari aurre egiteko erabaki batzuk hartu zituen. Ingurugiro saileko ministroak alternatiba hau eskaini zion industriari: industriak antolatzen du plastikoaren biltze eta birziklatzea bere kabuz, ala bestela kontsumitzaileek soberan dauden enbase eta kaja guztiak dendetara bultzatu eta bertan uzteko eskubidea dute. Horrelako mehatxu baten aurrean industriak lehen alternatiba aukeratu zuen, horretarako enpresa zentral bat sortu zelarik. Enpresa hau plastikozko zakarraren bilketaz eta birziklaketa antolatzeaz arduratu zen. Horretarako, fabrikanteek plastikozko bere produktuen kaja edo enbaseetan puntu berde bat jarri behar zuten, aldi berean enpresa zentralari, bilketa eta birziklaketa zerbitzuaren truke, zerga txiki bat ordaindu behar ziotelarik. Kate honen azken tokian kontsumitzaileak zeuden. Beraiek gordeko zuten puntu berdeaz markatutako plastiko guztia aparteko zakar poltsetan, boltsa horiek astean behin, kamioi bereziak pasatzen zirenean hain zuzen, kaleratzeko.

Orain arte bazirudien sistema honek ongi funtzionatzen zuela, baina orain dela gutxi kontrakoaz jabetu gara. Bi dira arazo nagusiak: lehendabizi, kontsumitzaileen kontzientzia ekologista ez dator bat Alemaniak gaur egun duen birziklatzeko kapazitatearekin, hau da, zakar gehiago bildu da birzikla daitekeena baino.

Bigarrenik, eta hauxe da arazorik garrantzitsuena, nahiz eta puntu berdea jarri, fabrikatzaile askok ez dio inolako zergarik ordaindu birziklaketa enpresa zentralari. Beraz, diru zuloa geroz eta handiago bihurtu da eta biltzaileak ordaintzeko dirurik ez zen gelditu.

Hemen, Euskal Herrian, Europako herri askotan bezala, zakarraren arazoaren hastapenetan gaude eta oker ez banago, gaur egun Nafarroa da birziklaketa sistema

erabiltzen hasita dagoen lurralde bakarra. Baina Alemaniako esperientzia horretatik ondorioak atera nahi izanez gero, hemen etorkizunean akats berberak egin ez ditzagun, honako bi hauek azpimarratuko nituzke: neoliberalismoak merkatu librean eta industria pribatuan erakutsi duen konfiantzak, ekologia arloan behintzat, ez du ezer konpondu. Are gehiago, industria ederki asko baliatu da gobernuak eskaini zion askatasunaz nahi zuena egiteko. Eta bigarrenik, etorkizunari begira, zakarraren arazoa konpontzeko, arazoa bere sustraietatik konpondu behar da, alegia, zakar gutxiago produzituz eta orokorki, batez ere heziketaren bidez, kontzientzia ekologista sendoa sortuz. Baina horrek gure sistema eta ohitura kontsumisten goitik beherako aldaketa eskatzen du, eta hori ez da egun batetik bestera egiten den gauza.

Ludger Mees, DV Zabalik (moldatua)

1.-Beheko lau esaldi hauetatik bat gezurrezkoa da. Zein da gezurrezko hori?

- a) Mendebaldeko gizarteak jaki gehiegi ezezik, zakar gehiegi ere produzitzen du.
- b) Askotan diseinuaren arabera izaten dira salmentak.
- c) Saltzeko orduan garrantzitsuagoa da itxura kalitatea baino.
- d) Gaurko munduan oinarritzko jaki eta produktuak soberan daude.

2.-Zer dio testuak hondakinen arazoaz?

- a) Gaur egun, lehen ez bezala, fabrikanteek badakite zer egin hondakinekin.
- b) Betidanik arduratu izan dira fabrikatzaileak erabilitako botilak erreziklatzeaz.
- c) Gaur egun, ekologistek esker, badakigu zer egin zakarrarekin.
- d) Gizarte kontsumista honen ondorioak mugimendu ekologistak plazaratu ditu.

3.-Zer egin dute Alemanian zakarraren aurkako burrukan?

- a) Aurrerapausu kaxkarrak egin dira orain dela gutxi arte.
- b) Duela gutxi hasi dira kezkatzen zakar organikoak aparte biltzeaz.
- c) Orain dela asko hasi ziren kristala birziklatzen eta zakar organikoa aparte biltzen.
- d) Gobernuak plastiko kontserbatzaileei buruzko neurriak hartu zituen.

4.-Zer egin zuen ingurugiro saileko ministroak?

- a) Plastikoa bere kabuz bildu eta birziklatuko zuela azaldu zion industriari.
- b) Kontsumitzaileei soberakinak dendan bertan uzteko agindua eman zien.
- c) Industriari azaldu zion kontsumitzaileen laguntzaz antolatzeko plastiko-birziklaia.
- d) Industriari eskatu zion plastiko-birziklaia bere gain hartzeko, bestela kontuz ibiltzeko erosleen eskubideekin.

5.-Horrelako egoeraren aurrean zein izan zen industriaren jokabidea?

- a) Zentral nuklearra sortu zuen plastikozko zakarren birziklaketaz arduratzeko.
- b) Plastikoa bere kabuz birziklatzea erabaki zuen, horretarako enpresa bat sortuz.
- c) Ez zuen erantzukizunik hartu bere gain.
- d) Plastikozko birziklaketaz enpresa bakoitza arduratzea erabaki zuten.

6.-Zer egin behar zen sistemak funtzionatzeko?

- a) Fabrikanteek zerga txiki bat ordainduko zioten gobernuari birziklaiarako.
- b) Fabrikanteek puntu berde bat jarriko zuten hainbat produktutan gero birziklatu ahal izateko.
- c) Kontsumitzaileek beraiek gorde beharko zituzten zakarrak puntu berdez markatzeko.
- d) Kamioiek astean behin jasoko zituzten zakar-boltsa berdeak.

7.-Nolako ondorioak atera dituzte?

- a) Konturatu dira Alemaniako kontzientzia ekologikoa oso eskasa dela.
- b) Normalean oso ona dela esan dezakegu.
- c) Eraitza kontrakoa dela jabetu dira, hau da, kaltegarria dela.
- d) Konturatu dira ez daukatela bildutako zakar guztia birziklatzerik.

8.-Bestalde, badago beste arazo latz bat:

- a) kontsumitzaile askok ez omen du zergarik ordaintzen.
- b) biltzaileei ordaintzeko dirurik ez dago hainbat fabrikatzailek zergarik ordaintzen ez duelako.
- c) fabrikatzaile askok ez omen du puntu berdea jartzen.
- d) ez dago dirurik birziklatzeko enpresa zentralak ez duelako inolako zergarik ordaindu.

9.-Zein da Euskal Herriko egoera arazo honetan?

- a) Nafarroa da, zalantzarik gabe, zakarraren arazoa konpondu duen lurralde bakarra.
- b) Arazo honen hasieran besterik ez gaude, Europan ez bezala.
- c) Nafarroan ezezik, beste lurraldeetan ere aurreratuta daude gai honetan.
- d) Nafarroan soilik erabiltzen da birziklaketa sistemaren bat.

10.-Alemaniako esperientzia horretatik atera dezakegun ondorioa:

- a) ekologiari eskainitako konfiantzak ez du ezer konpondu.
- b) konfiantzaz jokatzek neoliberalismora eramango gaitu.
- c) merkatuari eta industriari ez zaie gehiegizko konfidantza eman behar.
- d) merkatu libreak ez du inoiz hori konponduko.

11.-Zer proposatzen du idazleak etorkizunari begira?

- a) Arazoa konpontzeko heziketa eta zakarren birziklaia dira irtenbide bakarrak.
- b) Jendea hezi behar da kontzientzia ekologista izan dezan eta gutxiago kontsumi dezan.
- c) Arazoa konpontzeko, enpresek gutxiago produzitzea litzateke irtenbidea.
- d) Epe motzera heziketa da bidea ohitura kontsumistak aldatu ahal izateko.

12.-Zer nolako kezka erakusten du idazleak?

- a) Euskal Herriko arazoez kezkatuta dago batik bat.
- b) Alemania eta orohar Europa osoa dauka gogoan.
- c) Ludi osoko problemak hartzen ditu kontuan.
- d) Ekologia da ukitzen duen arazo bakarra.

ERANTZUNAK

1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12

IDAZMENA-1

Anuntzio hau ikusi duzu egunkarian publizitate sailean. Biziki gustatu zaizu, baina oraintxe konturatu zara zure eskolari, ez dakizu zergatik, ez diotela horrelakorik bidali.

Egizu, beraz, **gutun bat** dagokionari zuk behar duzun beste agenda eskatuz.

Luzera: **80 hitz ingurukoa**.

Iragarkia: BBK Agenda

Gogoratzen duzu eskola-garaian zelako nahaste-borrastea notak hartzean? Zenbat eta zenbat nahaste halako edo holakoren bat ahazteagatik?

Zure seme-alabek, berriz, ikastetxean banatuko zaien eskolako BBK agenda edukiko dute berriro ere aurtengo ikasturtean. Tresna bikaina izango dute beren denbora eta zeregin ezberdinak ordenatzeko.

Nola erabili erakusten ari zaizkie jada irakasleak. Eta zuek ere, gurasook, lagun dezakezue, agendari probetxu onena ateratzen.

A! hori bai, idazten dutena ez begiratu!. Beraiek ere badauzkate beren sekretuak.

IDAZMENA-2

Ondoko gaietatik **BAT AUKERATU** eta **200 inguruko** idazlana osatu:

A

BBBko irakaslea zara eta egun hauetan zure ikasleen artean oso irakurria eta ezatabaidatua izan da prentsan agertu den eskutitz hau. Zuk, ikasleengan duen eragina ikusita, erantzun egokia ematea deliberatu duzu egunkariari bidalitako gutun baten bidez, hor aipatzen diren zenbat punturi zeureak kontrajarriz.

Irakasle agurgarri horri:

Hementxe naukazu etxeko lanen aurrean eta neure buruari hainbat galdera egiten. Nota kaskar bat ipintzerakoan egiten al dizkiozu zeure buruari galdera berberak? Zu ere ikasle izana zara, zuk ere tragu txar berberak igaroko zenituen zure ikasle garaietan, garairik onenak askoren esanetan. Baina ez, ez dira garai onenak nire ustetan. Grebak? Ikasleen jai-borroka egun hauek zuretzat ere jai izaten dira. Gero uztail-abuztuetan, aprobatu ezinik, ez dira jai-egun hoberenak guretzat. Zu ere ikasle izan zinen, eta ez dut uste lan guztiak ordenatuta eta egunean eramango zenituenik. Gure adineko neska-mutilekin lan egitea zoratzeko modukoa omen da. Hori bazenekien lehendik ere. Hala ere, barrikadaren beste aldera pasatu zinen. Ez da izango ez, bizimodu txarra delako. Orain etxeko lanak utzi eta partidua ikusi behar dut. Biharko aitzakia bilatuko dut. Izan ere, zuk ez omen dituzu zure ikasle garaiak gogoratzen. Garairik onenak askoren esanetan.

Unai. Gasteizko Institutua.

EDO

B

OHOk lehen mailako irakaslea zara eta datorren hastean, udako oporren ondoren, hasiko duzue ikasturte berria. Ikasleek, noski, ez zaituzte ezagutzen eta beldur dira irakaslea eta ikastetxe zein gela berria nolakoak ote diren.

Hori dela eta, eskutitz bana bidali behar diezu gurasoei ondorengo puntuak azalduz: nor zaren, zein eta nolako den zuen gela, ordutegia (sartzeko eta ateratzeko arauak barne), hurrek ekarri behar dutena (jantzia, ezaugarriak, materiala...); gainera, haurren beldurra kentzeko egun horretan zer egingo duzuen eta zeure aholku batzuk azalduko dizkiezu.

II.2. LEHEN DEIALDI ITXIA: HE2ko AZTERKETA

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE2
eredua: A

IDATZIZKO PROBA

1994ko otsailaren 4a

<i>1. Deitura:</i>	<i>2. Deitura:</i>									
<i>Izena:</i>	<i>NAN:</i> <table border="1"><tr><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>									

OHARRAK

1. Konprobatu azterketa honek 8 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
2. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
3. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
4. Azterketa-materialak entregatu egin behar dira irten baino lehen.

IRAKURMENA

Oharrak:

- osorik irakurri artikulua erantzuten hasi aurretik
- item bakoitzean aukera ezazu erantzunik egokiena
- testua kontsulta dezakezu

Emakumezkoaren garuna, gizonezkoaren garuna

Gizonezko eta emakumezkoaren artean dauden aldeak ez dira bakarrik atributu fisikoetara mugatzen, baita adimen-mailan problemak ebasteko duten gaitasunetara ere. Sexuak, dirudienez, adimen-eduki kualitatiboki desberdinak sortarazten ditu emakumezkoengan eta gizonezkoengan. Horrek ez du esan nahi, noski, adimen-koefiziente desberdinak izan behar dituztenik.

Ikertzaileek diotenez, gizonezkoak trebeagoak dira emakumezkoak baino honako jardueretan, batezbeste: espazioko lanetan, arrazonamendu matematikoetan, punterietako eta ibilbide egokia aukeratzeko norabidearekin lotutako probetan. Emakumezkoa aldiz, azkarragoa omen da pertzepzio-mailan, korrelazionaturik dauden objetuen aukeraketetan, adierazpen berbalean, aritmetikako kalkuluetan eta ibilbide batean ikusitako zehaztasunak gogoratzeko ahalmenetan ere.

Orain dela gutxi arte, diferentzia horiek kulturalak zirela uste zen, ingurunean bultzaturikoak. Azken azterketen arabera, ordea, hori ez da horrela. Ikertzaileek diotenez, garun-funtzioak bi eratan moldaturik daude sexuaren arabera. Eta hori jaio baino lehen gertatzen da, sexu-hormonen eraginpean denbora desberdinetan baikaude emakumezkoak eta gizonezkoak. Jaio ondoren giroak eragin handia du, baina jadanik orientaturik dauden bi garun-mota desberdinen gain eragiten du, ar ala eme garen neurrian.

Ikertzaileen ustez, garunaren sexu-bereizketa hori diferentzia anatomiko konkretuetan isladatu behar da. Egindako ikerketetan ikusi ahal izan da hipotalamoaren zonalde preoptikoa handiagoa dela gizonezkoen kasuan emakumezkoen kasuan baino. Horren arrazoia garun-funtzioen berizketarekin loturik egon liteke. Era berean ikusi ahal izan da garunaren bi hemisferioen antolakuntza (espazioko senari eta hizkuntzari dagokiena) simetrikoagoa dela emakumeengan gizonengan baino. Horren arrazoia ere lehen aipatutakoa izan liteke.

Gizakumearen bizitzan zehar ere ezagutzarako pautak hormonen fluktuazioen eraginpean egon litezke. Emakumezkoen errendimendua, adibidez, hilerokoa duten garaietan, aldatu egiten da estrogeno-maila igo ala jaitsi egiten den heinean. Aldiz, urtaroen araberrako aldaketek espazio-gaitasunean eragiten dute gizonezkoengan.

Ikerketarako eremu berri honek hasi baino ez du egin, baina desberdintasun horiek argitzeko jadanik hasi dira hipotesi batzuk kaleratzen. Batzuen iritziz, ho-

minizazioaren azkenengo 50.000 urteetara joan beharko genuke aipatutakoaren arrazoiak aurkitzeko. Ikertzaile hauek diotenez, hautespen naturalak moldatu zuen bi garun-mota hauen egituraketa. Zergatik? Aldaketa horiek hobeak gertatu zirelako, termino ebolutibotan. Mila urteetan zehar hominidoak biltzaile-ehiztari kolektibitatean bizi izan ziren, eta horrela antolatutako gizarte batean sexuen rol-banaketa erabatekoa izan zen seguraski. Arrak ehizean ibiliko ziren eta beren gain hartuko zuten taldearen zaintza. Emeak, bitartean, bizitokiaren inguruetan jangaiak biltzen ibiliko ziren, familia zainduz aldi berean.

Bi lan-modu horien espezializazioak bi taldetan (emakumezkoak eta gizonezkoak) presio selektibo desberdinak eragingo zituen, horren ondorio zuzena arren eta emeen garunen espezializazio eta eraketa desberdinen sorrera izanik.

Teoria hauek interesgarriak badira ere, kontuz ibili behar dugu. Soziobiologiaren historia ikastea baino ez dugu, eboluzioaren izenean zenbat astakeria eta arrazismo-mota defenditu diren ikusteko. Egun, krisi latzean murgildurik dagoen gure gizarte honetan ez dirudi emakumezkoen eta gizonezkoen rolen banaketa gaizki ikusia denik, batez ere, zientziaren izenean, emakumea bere etxean gelditu behar dela bere garunaren egituraketarekin bat egiteko defenditzen denean. Era horretan, emea, berriro ere, zokoratua izan daiteke *objetiboki* eta gero eta langabezia handiagoa duen gizarteak ez du arazo handirik izango horrelako joerak bultzatzeko. Egon gaitetzen adi, bada, zientzia historikoki interes politiko eta ekonomikoen menpe egon baita, eta askatzaile izan daitekeen bezala zanpatzaile ere erraz bihur baitaiteke.

Alfontso Martinez Lizarduikoa, JAKIN 75

1.-Zer dio testuak?

- a) Sexuak adimen-mailan arazoak sortzen ditu.
- b) Sexuak adimen-koefizientean aldeak sortarazten ditu.
- c) Adimen-mailako zenbait ezaugarri sexuaren ondorio da.
- d) Sexuaren ondorioak pertsonaren alde fisikoan baino ez dira nabari.

2.-Ikertzaileen arabera

- a) Gizonezkoak orokorrean trebeagoak dira emakumezkoak baino.
- b) Emakumezkoak ez dira horren trebeak jarduera matematikan.
- c) Matematika-arloan emakumezkoak oro har trebeagoak dira.
- d) Matematika-arloan bada gaitasun diferenterik sexuen arabera.

3.-Gai honi dagokionez, ikerlariek

- a) bereizi egiten dituzte diferentzia kulturalak eta ingurunearenak.
- b) ukatu egiten dute ingurunearen eragina.
- c) sexuaren eragina erabakiortzat jotzen dute.
- d) sexu-hormonen eraginari bi funtzio aitortzen dizkiote.

4.-Garunaren sexu-bereizketa

- a) zenbait diferentzia anatomikorekin harremanetan legoke.
- b) desberdintasun anatomikoaren ondorio eta islada da.
- c) hipotalamoaren neurriekin erabat loturik dagoela frogatu dute.
- d) simetrikoagoa da emakumeengan gizonezkoengan baino.

5.-Zer dio testuak ezagutzaren inguruan?

- a) Emakumezkoaren errendimentua hilabetetik hilabetera aldatzen da.
- b) Estrogeno-maila igo ahala emakumezkoaren errendimentua hobetu egiten da.
- c) Emakumezkoak hormonon eraginpean daude, baina gizonezkoak ez.
- d) Hormonek eragina izan dezakete gizakien ezagutza-bideetan.

6.-Garun-mota eta eboluzioari dagokionez, zein da zuzena?

- a) Sexuen rol-banaketaaren ondorio izan liteke garun-mota desberdinen egituraketa.
- b) Ikertzaileek duela 50.000 urte aurkitu zuten sexu-bereizketaaren arrazoia.
- c) Garai bateko ikertzaileak, oraingoak ez bezala, hautespen naturalean oinarritzen ziren.
- d) Aldaketa hoberenak biltzaile-ehiztari taldeetan eman ziren.

7.-Zein da zuzena testuaren arabera?

- a) Gizonezkoek eta emakumezkoek presio handiak zituzten lana espezializatzeko.
- b) Sexuen ondorio izan zen bi lan-modu horien sorrera.
- c) Gizonezkoek lan-presio handiagoa jasaten zuten emakumezkoek baino.
- d) Lan-motaren ondorioz baliteke ar eta emeen garunak desberdinki eboluzio-natzea.

8.-Artikulugileak

- a) teoria hauen erabilpenaz ohartarazten gaitu.
- b) ez du zientziazat hartzen Soziobiologia.
- c) gaitzetsi egiten ditu hemengo teoriak.
- d) krisi garaian gaudenez ez du gaizki ikusten sexuen rol-banaketa.

9.-Artikulu honen arabera

- a) sexuen araberako rol-banaketa erabat zientifikoa da.
- b) aipatutako teoriak interes politiko-ekonomiko jakina daukate.
- c) zenbait teoria zientifikoren erabilera arriskutsua izan daiteke.
- d) zientzia historikoekin argi ibili behar dugu.

10.-Zein da laburpenik egokiena?

- a) Emakumezkoen eta gizonezkoaren arteko desberdintasunak kulturalak zirela uste genuen baina ez da horrela. Artikulu honek garbi azaltzen digu desberdintasun horien iturria erabat biologikoa dela, jaio aurretik erabakiak daudela eta inguruneak ez duela horretan eraginik. Arrazoi zientifiko eta objektiboak daude beraz gaur eguneko rol-banaketa justifikatzeko.
- b) Sexuaren araberako aldeak uste baino sakonagoak dira eta adimen-kontuetaraino iritsiko lirateke. Horren arrazoiak ez daude argi baina hipotesi interesgarriak ari dira plazaratzen eboluzioan ardazturik. Teoria horiek ordea politikak ez ezik arriskutsuak ere izan daitezke. Erne, beraz!
- c) Interes handiko gaia darabil artikulu honek emakumezko eta gizonezkoaren garunen desberdintasunak zertan diren azaltzen baitigu. Hala ere teorizazioa gaur eguneko emakumezkoaren diskriminazio-egoera betirakotzeko asmoz eginga dago eta nahiz eta Soziobiologiaren izenean egin, interes politiko eta ekonomikoak begibistakoak dira. Kontuz, bada!
- d) Gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak fisikoak ez ezik adimen-mailakoak ere badira. Azken hauek eragin zuzena dute ihardunbidea aukatzerakoan. Horra hor gizakia sortu zeneko garaietatik datorkigun rol-banaketaaren arrazoa. Kulturak bultzatutako diferentzia zela uste genuen orain arte, baina iritzi hori jadanik baztergarria da, jaio aurretikoa baita. Hau horrela bada ere, kontuz ibili beharra dago gaur egun emakumea diskriminaturik gera daiteke eta.

ERANTZUNAK

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

IDAZMENA-1

Arduraturik zabilta zure ikasleen emaitzekin. Ikas ohiturek eragin zuzena dutelakoan zaude eta gurasoei, konponbide gisa, gomendio-sorta bat (adibidez: etxerako lanak egunero egin, ikasteko orduak, telebista, jezartzeko modua...) bidaltzea erabaki duzu, proposamenak arrazoituz, jakina. Presta ezazu gurasoentzako idazki bat izenburu honen pean:

«Zure seme-alaben ikas ohiturak nola hobetu»

200 hitz inguruko luzera eman behar diozu.

IDAZMENA-2


Gaia: «Herri-ikastetxeek bere autonomia izan beharko lukete».

Kontestua: Irakaslea zara. Eskolako aldizkarirako gai honi buruzko **iritzi-artikulu bat** eskatu dizute. Honetarako honelako puntuak ardatz bezala erabil ditzakezu:

- Finantza-autonomia: diru-iturriak, propaganda, dirua zertan eta noiz gastatu...
- Giza baliabideak: irakasle eta gainerako pertsonalaren kontratazioa eta soldata...
- Zerbitzuak: enpresa pribatuekiko kontratuak, kirol-ekipamendua...
- Barne-funtzionamendua: ikasketa-planak, ereduak, curriculum-ego-kitzapenak...
- ...

Puntu hauek edo antzeko beste batzuk ikutuaz, zure iritziak eta arrazoiak eman itzazu.

- **400 hitz inguruko** idazlana egin behar duzu.
- Gramatika-zuzentasunaz gain, testuaren egitura eta egokitasuna ere kontuan hartuko dira.



III. 1994ko BIGARREN DEIALDI ITXIA

III.1 BIGARREN DEIALDI ITXIA: HE1eko AZTERKETA

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE2
Eredua: A

IDATZIZKO PROBA

1994ko uztailaren 5a

<i>Euskaltegia:</i>	<i>Taldea:</i>										
<i>NAN:</i> <table border="1"><tr><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>											

OHARRAK

1. Konprobatu azterketa honek 11 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
2. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
3. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
4. Azterketa-materialak entregatu egin behar dira irten baino lehen.

AHOZKOAREN ULERMENA

- Orain testu bat entzungo duzu, baina hiru zatitan banatua.
- Testu-zati bakoitza bi aldiz entzungo duzu.
- Erantzun zuzenei borobil bat egin.

Tabakoaren Historia

(Euskadi irratitik grabatutako testua. Jarraian grabazioaren transkribaketa ematen da.)

I. ZATIA: Galderak 1-4

- Lehen zati hau bi aldiz entzungo duzu.
- Entzun baino lehen, arretaz irakurri 1-4 galderak eta erantzun posibleak.

Gaur egun erabat ugaritu dira tabakoaren aurkako kanpainak, baina ez dira gaur goizean jaiotakoak eta ez dira XX. mendeak sortu dituen hainbatetako bat. Tabakoak ere halako bilakaera ziklikoa jasan du, hasierako kontzeptu berberera iritsiz, bizio madarikatua izatera iritsiz, alegia.

XVI. mendean erretzea oso ohitura berezia izan zen eta erabat baztertuta zegoen. Herri xehearen bizioa izan zen. Aristokraziak eta nobleziak ez zuten ezer jakin nahi, beren jardinetan halako landarea baldin bazegoen ere. Landare hura, ordea, ez zen inola ere ezpainera eraman eta erretzeko, baizik eta landare exotiko baten jabe zirela adierazteko... Handi-puntua orduan ere nagusi.

XVII. mendean zehar erretzaileak ugaritu egin ziren eta, haiekin batera, baita tabakoaren aurkakoak ere. Ingalaterran esatebaterako, Jakobo I.a erregearen gaitzespenarekin egin zuen topo tabakoak, errege hark benetan nazkagarria irizten baitzion pipan erretzeari. Gainera, Ingalaterrara joaten zen tabakoa Espainiatik joaten zen eta garai hartan Ingalaterrarentzat ez zen Espainia baino etsai handiagorik.

Baina Jakobo I. aren ahalegina bere herriak birrikak garbiak izan zitzan alferrikakoa izan zen. Eta bizioa errotik kentzerik ez zuela jabetu zenean, sekulako prezioa jarrarazi zion tabakoari. Halatan, 1608an tabakoaren zerga ezarri zuen mar-txan.

Europara zihoan tabakoa Espainiatik pasatzen zen, Sevilla izaki porturik nagusia. Eta Andaluzian erretzeko ohitura izugarri zabaldu zen, baina erretzaile amorratuak ez ziren andaluziarrak bakarrik. Garai hartako komertziantek, noranahi joaten zirela ere, tabakoaren kea eta usainaz gain, ohitura ere zabaldu egiten zuten. Eta hedapen hartan lagundu zuen beste bat gerratea izan zen. XVIII. mendean hain ugari ziren gerratek tabakoaren ohitura zabaldu zuten, estimulagarria eta lasaigarria zela esaten baitzioten elkarri soldaduek; haiek ere zerbait behar eta...

II. ZATIA: Galderak 5-8

- Bigarren zati hau ere bi aldiz entzungo duzu.
- Entzun baino lehen, arretaz irakurri 5-8 galderak eta erantzun posibleak.

XVIII. mende hartarako, gainera, erretzea erabat onartuta zegoen Europan eta ez hasieran bezala herri xehearen ezpainetan eta ahotan bakarrik: aristokrazian bezalaxe noblezian ere bai; nola gizonezkoak hala emakumezkoak, denak ere tabakoa dastatuz...

Salmenten kopuruak sekulako maila lortu zuen eta, ondorioz, herrialde askotan tabakoa izan zen diru-iturririk onena. Ameriketako gerrate zibilean, adibidez, Iparaldeak armak Espainiari erosten zizkion eta ez diruarekin ordaintzeko, tabakoaren truke baizik.

XVIII eta XIX. mendeetan, gainera, erretzea ohitura hutsetik moda izatera pasa zen, tabakoaren merkatua ez baitzen landarera bakarrik mugatzen: erretzailea osagarriz hornitu zen bere bizioa ondo disfrutatzeko. Pipak eta bokilak artisauen esku abiletatik jaio ziren eta edozein patrika, mahai eta ezpainetan erakusgai jarri ziren.

Eta piskanaka-piskanaka erretzeak ekintza pasiboa izateari utzi zion. Irakurketa, solasaldi edo denborapasarako lagun, presaka bizi beharra eta hirietako masifikazioarekin batera, erretzea ekintza lasaigarritzat hartu zuen jendeak. Trena edo autobusaren zain egoterakoan, bazkalondorenerako edo edozein ordutako kafearen ostean betarik izanez gero, beti zigarro bat ezpain artean...

III. ZATIA: Galderak 9-12

- Hirugarren zati hau ere bi aldiz entzungo duzu.
- Entzun baino lehen, arretaz irakurri 9-12 galderak eta erantzun posibleak

Eta ez zen jabetu gizakia tabakoak bere premia edo dependentzia sortzen zuela. Gerrate garaitan eta krisi ekonomikoetan zein sindrome izaten zen ikusi besterik ez. Espainian, gerrate zibilaren ondorenean, arrazionamendu kartiletan, esnea, ogia eta haragiak gain, tabakoa ere bazen. Orduan ere, ordea, baziren aldeak: gizonezkoen kartiletan zen ezinbesteko osagai tabakoa... emakumezkoenetan ezta pentsatu ere...

Baina 1974. urtean OMSeK, Munduko Osasun Erakundeak, tabakoari «droga» izena eman zion eta harrez geroztik tabakoaren aurkakoek bazuten zeri heldua: kutsadura sortzen zuten erretzaileen aurka «ez erre», «erretzea debekaturik» eta tankerako esaldiburuak pareta, ate eta mahai-gain ugaritan ipini ziren..., autobusetan, trenetan eta hegazkinetan erretzea erabat galerazita; edota baztertutako tokiak hartarako eskainiz... erretzaileak beren ke artean ito zitezten.

Zenbait lantokitako nagusi eta jabeak ere hasi ziren soldata bereziak edo dirusariak ematen, edo opor-denboraldi handiagoak eskaintzen lagile erretzaileei, ez erretzaile bihur zitezten.

GALDERAK

I. ZATIA

1.-Noiztik hartu da tabakoa biziotzat?

XX. mendetik	a	c	XX. mendearen bukaeratik
Hasieratik	b	d	XVIII. mendetik

2.-Zer gertatzen zen XVI. mendean tabakoarekin?

Baztertuek bakarrik erretzen zuten	a	c	Erretzea ohitura exotikoa zen
Ez zen erretzen	b	d	Landarea handitasunaren ezaugarria zen

3.-Jakobo I.a, Ingalaterrako erregeak 1608.urtean zerga bat jarri zuen...

pipan erretzea gustatzen ez zitzaiolako	a	c	tabakoa erretzeko ohiturari aurre egiteko
Espainiako tabakoari kontra egiteko	b	d	espainolak nazkagarriak iruditzen zitzaizkiolako

4.-Nork hedatu zuen tabakoa mundu osora?

Andaluziako soldaduek	a	c	Merkatariek
Sevillako jendeak	b	d	Merkatariek eta soldaduek

II. ZATIA

5.-Nork erretzen zuen XVIII. mendean?

Mundu guztiak, gizon zein emakumezkoek

a

Nobleziak eta aristokraziak

c

Herri xeheak bakarrik

b

Emakumezkoek ez

d

6.-Zer arma ordaintzen ziren tabakoaren truke?

Espainiak Ameriketean erabilitakoak

a

Espainiak Hego Amerikan saldutakoak

c

Espainiak Ameriketean erositakoak

b

Espainiak Ameriketako gerra zibilean saldutakoak

d

7.-XVIII eta XIX. mendeetan tabakoa moda bihurtu zen...

eta pipa eta bokilen erabilera hedatu egin zen

a

eta landarea osagarri bezala erabiltzen zen

c

eta erakusketak egiten ziren

b

artisauei esker

d

8.-Tabakoak aldaketa bat jasan zuen. Presaren ondorioz...

ekintza pasibo bihurtu zen

a

lasaigarri bihurtu zen

c

denborapasa bihurtu zen

b

trenak eta autobusak erretzailez bete ziren

d

III. ZATIA

9.-Tabakoa zela eta, Espainiako gerra zibilaren ondoren...

- | | | | |
|--|---|---|---------------------------------------|
| sindromea sortu zen | a | c | esnea erosteko erabiltzen zen |
| gizonezkoen arrazionamendu kartiletan agertzen zen | b | d | emakumezkoek ezin zuten tabakoa erosi |

10.-Zein urtetan eman zitzaion «droga» izendapena tabakoari?

- | | | | |
|------|---|---|------|
| 1954 | a | c | 1974 |
| 1964 | b | d | 1984 |

11.-Zer debekatu zuen OMSeK, Munduko Osasun Erakundeak?

- | | | | |
|--------------------------------|---|---|---|
| Erretzaileak ke artean itotzea | a | c | Tren, autobus eta hegazkinetan erretzea |
| Erretzaileak baztertzea | b | d | Toki baztertuetan erretzea |

12.-Zer egiten dute erretzaileekin lantegi batzuetan?

- | | | | |
|-----------------------|---|---|------------------------------------|
| Opor luzeagoak eman | a | c | Lanpostua uzteko diru-sariak eman |
| Opor laburragoak eman | b | d | Erretzeari uzteko diru-sariak eman |

Proba bukatu ondoren, erantzunak ondoko lauki hauetara pasa:

ERANTZUNAK

I. ZATIA

II. ZATIA

III. ZATIA

Erantzunak:

1	
2	
3	
4	

5	
6	
7	
8	

9	
10	
11	
12	

Bi ordu eta 15 minutu dituzu ondoko hiru ariketak egiteko.

2. IRAKURMENA

Testu hau arretaz irakurri eta ondoko galderei erantzun atzeko koadroan

Irakurlearen jakinmina asetzeko gaiak

Duela sei urte sortu zen Gaiak argitaldaria, liburugintzan zegoen hutsune bat betetzeko asmoz. Literaturaz kanpo dauden gai zientifikoak dira Gaiak-en abiapuntuak, eta duela gutxi plazaratu ditu bere azken lau idazlanak. Hau dela eta, Donostian daukan egoitzara joan ginen arduradunekin hitz egitera.

Lau dira Gaiak argitaldariak plazaratu berri dituen idazlanak: «Nafarroa Erdi Aroan», «Naturaren enigma kitzikagarriak» (kitzikagarria=gogoa pizten duena), «Gizakia bere arimaren bila» eta «Munduari buruzko nire pentsamoldea». Normalean egiten den garapen politikoaz gain, beste gai batzuk lantzen ditu lehenengoak. Garai horretako gizarteko klase ezberdinen bizimoduak aipatzen ditu, Nafarroako Erresumak Europan betetzen zuen zeregina eta erresumaren desagerpenaren arrazoiak.

Bigarrenak, berriz, zientzia jorratzen du, eta ustez geroaldian egingo diren lasterketa espazialak, itsas sakonetara egindako bidaiak nahiz mapa enigmatikoak dira aztertzen dituen gainerako gaiak. Azken bi liburuak «Pentsamendu garaikidea» bilduma sailekoak dira. Carl Gustav Jung-ek idatzi ditu «Gizakia bere arimaren bila»ren bi liburukiak, eta Albert Einstein-en pentsamoldeari buruzko artikulu sorta biltzen du «Munduari buruzko nire pentsamoldea»k.

Hiru bildumatan banatuta bideratzen ditu argitalpenak Gaiak etxeak. «Oinarriko liburutegiak» gai ugari jorratzen ditu ikasle nahiz irakurle arruntari zuzendurik.

Arrazakeria, Objeto Hegalari Ezezagunak, gizakiaren jatorria... dira bildumako gai batzuk. «Gai erakargarriak dira ikuspegi moderno batetik aztertuta eta euskara errazean —azaldu digu argitaldariko kide den Alizia Stürtzek—, jendearen jakinmina berpizteko asmoz».

Dibulgazio-liburuez ere osaturik dagoen bigarren bilduma bi sailetan banatuta dago —«Zientzia eta natura» eta «Historia eta gizartea»—; eta «Pentsamendu garaikidea» izeneko hirugarrenaren bitartez XX. mendeko pentsamenduaren obra garrantzitsuen itzulpenak irakur daitezke, Jacques Monod, Steven Wienberg eta lehen aipaturiko Einstein zein Jung egileen idazlanak, esate baterako.

Literaturaz kanpo dauden gai zientifikoak jorratzea da Gaiak-en asmoa: «Hutsune hori bete behar da, euskarak bere garapenerako behar duelako eta gure kulturamaila igotzeko», esan digu Stürtzek. «Normalean testuliburuak edo literatura argi-

taratzen dira, eta ikasleek eta jendeak, orohar, ez zuten horrelako gaiak euskaraz irakurtzeko aukerarik».

Liburuen aurkezpena zaintzea da Gaiak-en beste abiapuntua. «Saiatzen gara informazioa letren bidez eta argazki, eskema eta mapen bidez ematen». Zenbait lanetan hiztegitxo bat ere aurki daiteke. «Hiztegi eta lexiko aldetik arazo asko izan ditugu. Baina horrelako lanen bitartez gauzak aurreratuz doaz pixkanaka».

Unibertsitate eta ikastolako zenbait irakaslek osatzen dute Gaiak taldea, eta Jose Ramon Etxebarria, Martxel Aizpurua, Joseba Agirreazkuenaga, Luis Maria Bandres, Iñaki Azkune, Julio Caro Baroja, Alfontso Martinez Lizarduikoa, Noam Chomsky... dira egile eta itzultzaileetariko batzuk. Bestalde, «Pentsamendu garai-kidea» bildumaren inguruan batzorde tekniko bat osatzen ari dira Gaiak taldekoak bertako zein kanpoko unibertsitateetako hainbat kiderekin, beren aholkua jasotzeko liburuak argitaratzeko garaian.

Hiru bildumen bitartez bete ditu hasierako helburuak Gaiak etxeak, eta sailak sendotu ondoren titulu berriak argitaratzen jarraituko dute. Besteak beste, Pirineoak eta Galizia nahiz Kataluniako historia izango dira jorratuko dituzten hurrengo gaiak. Alizia Stürtze eta Iñaki Gonzalez Garai Gaiak-eko kideek azpimaratu digutenez, liburuetan kolorea pixkanaka erabiltzea da beren hurrengo urratsa diseinuari dago-kionez.

Joxi GOIKOETXEA. Argia, 1994-III-13 (moldatua).

Lau erantzunen artean zuzena aukeratu eta atzeko koadroan ipini.

1.-Zertarako sortu zen «Gaiak» argitaldaria?

- a) Orduko liburugintza suspertzeko.
- b) Liburugintzan zegoen hutsune bat betetzeko.
- c) Literaturan zegoen hutsunea betetzeko asmoz.
- d) Argitaldaries zitezten hutsuneak betetzeko.

2.-Zeintzuk dira Gaiak bildumak jorratu nahi dituen arloak?

- a) Literatura eta, horrez gain, beste gai zientifiko batzuk.
- b) Literatura abiapuntutzat hartuta, gai zientifikoak jorratu nahi ditu.
- c) Literatura ez diren zenbait gai zientifiko jorratu nahi ditu.
- d) Literaturan gai zientifikoetan zegoen hutsunea bete nahi luke.

3.-Zein da «Nafarroa Erdi Aroan» liburuaren muina?

- a) Oraingo Nafarroari buruzko zenbait gai garatzen ditu, garapen politikoa barne.
- b) Nafarroako gizarte-klase ezberdinak, erresumak Europan zuen eragina eta zergatik desagertu zen azaltzen du, bestak beste.
- c) Nafarroari buruzko zenbait gai garatzen ditu, baina arlo politikoa ez du ukitzen.
- d) Nafarroaren historia ezkutuari dagozkion zenbait gai lantzen ditu.

4.-Zeintzuk dira «Naturaren enigma kitzikagarriak» liburuaren nondik norakoak?

- a) Geroaldiko zientzia jorratzen du; egingo diren lasterketa espazialak, besteak beste.
- b) Zientzia jorratzen du, itsas sakonetako lasterketak eta mapa enigmatikoak, besteak beste.
- c) Zientzia jorratzen du, baina oso maila apalean.
- d) Geroaldiko gizarte eta zientzi gaiak tratatzen ditu.

5.-Zer esaten du testuak azken bi liburuei buruz?

- a) Bi liburuak Jung-ek idatzi dituela.
- b) Einsteinen pentsamoldeari buruzko artikulu bildumak direla.
- c) Sail berekoak direla, baina egile ezberdinek egin dituztela.
- d) Lehenengoa Jung-ek idatzitakoa dela eta bestea Einsteinek.

6.-Zeintzuk dira gai hauen ezaugarriak?

- a) Jendearen jakinmina berpizteko, erakargarriak izateaz gain, euskara errazean daude.
- b) Gai arraroak dira euskara errazean emandakoak, jendearen jakinmina berpizteko.
- c) Jendearen jakinmina eta euskara-zaletasuna pizteko ikuspuntu moderno batetik aztertutako gaiak dira.
- d) Jendearen jakinmina berpizteaz gain, euskara moderno eta errazean idatzita daude gaiak.

7.-Nola dago banatuta Gaiak argitalpena:

- a) Dibulgazio liburuez osatuta dauden bi bildumatan.
- b) Hiru bildumatan agertzen bada ere, bigarrenak bere barnean bi sail biltzen ditu.
- c) «Historia eta gizartea», «Zientzia eta natura» eta «Pentsamendu garaikidea» izeneko hiru bildumatan.
- d) «Oinarrizko liburutegia» izeneko argitalpenak hiru bilduma biltzen ditu bere baitan.

8.-Zein da argitaldari honen helburua?

- a) Testuliburuak edo literatura irakurtzen dutenei euskaraz irakurtzeko aukera ematea.
- b) Literatura eta testuliburuaren euskara eta kultur maila jasotzea.
- c) Literatura eta testu liburuek euskara eta kultur eremuan zuten hutsune bat betetzea.
- d) Kultur maila jasotzea eta euskara garatzea, orain arte argitaratzen ez ziren zenbait gai eskainiz.

9.-Zer gertatu zaie lexikoarekin?

- a) Arazo handiak izan dituztenez, gaikako hiztegitxoak osatu behar izan dituzte.
- b) Zenbait gaitan aurrera egin ahal izateko, ez dute hiztegitxoen beharrik ikusi.
- c) Arazo larriak izan badituzte ere, horrelako lanekin gauzak aurrera joaten omen dira.
- d) Arazo handiak izan dituzte zenbait gaitan ematen duten hiztegitxoa osatzeko.

10.-Nork osatzen dute Gaiak taldea?

- a) Ikastolako irakasleek eta atzerriko itzultzaile batzuek.
- b) Euskal Herriko zientifiko ezagunenek.
- c) Unibertsitateko eta ikastolako irakasleek eta atzerriko zientifiko batzuek.
- d) Irakasle-jendeak, hain zuzen Unibertsitateko irakasleak eta ikastolakoak.

11.-Zertan ari dira «Pentsamendu garaikidea» bildumaren inguruan?

- a) Bertako zein kanpoko unibertsitateetako hainbat kideren aholkuak jasoko dituzte.
- b) Batzordeak osatzen ari dira aholkuak emateko.
- c) Liburuak argitaratzeko batzorde bat osatu dute.
- d) Kanpoko irakaslez osaturiko talde tekniko baten aholkuak hartuko dira kontutan.

12.-Zertan ari dira orain Gaiak-ekoak?

- a) Sailak sendotu ondoren, dagoeneko pentsatuta dituzten gai berriak argitaratzeari ekingo diote.
- b) Gai berrietan kolorea nagusi izatea nahiko lukete.
- c) Hasierako helburuak bete arte ez dituzte Katalunia, Pirineoak eta Galiziako gaiak argitaratuko.
- d) Hasierako hiru bilduma horiek osatu nahi dituzte, oraingo diseinuan kolorea pixkanaka erabiliz.

ERANTZUNAK

1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12

3. IDAZLAN LABURRA

Gutun honek 90 hitz inguru izan behar ditu.

Zure ikastetxea dagoen herrian papera biltzeko ontzi handi batzuk ipini dituzte zenbait kaletan. Paper hori gero birziklatzera eramaten dute. Zuen ikastetxearen inguruan, ordea, ez dago horrelako ontzirik batere. Ikastetxean, jakina, paper mordoska biltzen da egunero zakarretarako, baina garbitzaileek (udaletxeak ordaintzen ditu, gainera) zabor guztia batera biltzen dute.

Idatz iezaiozu udaletxeari egoera hori konpontzeko eskatuz eta zure ikuspuntua agertuz.

2. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitz inguruko idazlana osatu.

Ikastetxeko klaustroak arazo bitxia du aurrean. Badira sei-zazpi urte erlijioa kendu zela zuen ikastetxean, baina orain guraso talde bat etorri zaizue berriro jartzeko eskatuz. Arazoaren aurrean klaustroak bilera bat egin du eta gurasoei idazki bat bidaltzea erabaki du. Bilera horren ondorioz gurasoentzat izango den **gutun horren erredakzioa** egitea zuri tokatu zaizu. Hona hemen gutun horretan ager daitezkeen zenbait puntu:

- Gai horren inguruan ikastetxean gertatutakoaren historia laburra.
- Erlijioaren orde z zer egin daitekeen.
- Nola moldatzen zareten orain duzuen egoeran.
- Zer abantaila edo eragozpen izango lituzkeen erlijioa berriro ezartzeak.
- Zein da azken batean zuen iritzia eta gurasoengandik espero duzuen.

EDO

Zure ikasle baten aita etorri da zurekin hitzegitera. Bizilekuz aldatzen direla esan dizu: Tolosara doaz bizitzera. Ikasturte erdian zaudetenez, ohizko dokumentazioaz gain, ikasle horri buruzko txosten bat egitea pentsatu duzu Tolosako eskolari bidaltzeko. Hona hemen aipa ditzakezun zenbait puntu:

- Ikaslearen nortasuna.
- Maila akademikoa, zertan dabilen ongi, zertan ez...
- Familiaren egoera, etxeko hizkuntza...
- Zaletasunak, eskolaz kanpoko ekintzak.
- Harremanak: lagunekin, irakasleekin...
- Zure gomendioak.

III.2 BIGARREN DEIALDI ITXIA: HE2ko AZTERKETA

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE2
Eredua: A

IDATZIZKO PROBA

1994ko uztailaren 1a

<i>Euskaltegia:</i>	<i>Taldea:</i>								
<i>NAN:</i> <table border="1"><tr><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td><td> </td></tr></table>									

OHARRAK

1. Konprobatu azterketa honek 10 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
2. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa esketzeko, jaso eskua.
3. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
4. Azterketa-materialak entregatu egin behar dira irten baino lehen.

Bi ordu eta 45 minutu dituzu ondoko hiru ariketak egiteko

1. IRAKURMENA

Testu hau arretaz irakurri eta ondoko galderei erantzun atzeko koadroan

Informazioa eta demokrazia, Euskadin gaur

Duela hilabete batzuk, Plataforma honek komunikatzeko eskubidearen alde, adierazpen-askatasunaren alde, komunikabide publikoen zerbitzu publikoaren alde eta komunikabide autonomoen garapen eta aniztasunaren alde egin zuenean, kazetariaren lanarekiko zenbait arriskuri buruzko kezka ere azaldu zuen. Geroztik gertatu diren gauzek arrazoia eman diote gure komunikatze-sistimaren hondatze demokratiko eta deontologikoagatik jaurti genuen alarma hari.

Lehenik eta behin, Iglesiasen bahiketa dela eta, zenbait gertaera ezkor ikusi ahal izan da. Informazioa erantzun sozialak sortzeko tresna gisa erabili izan da, komunikabideak alderdikerien berehalako oihartzun bihurtuz. Zifren erabilera okerra egin da (manifestazioetan) eta baita albisteena ere (Goierriko enpresarien bilera). Alarma soziala eragin zuten gertaerak nahita azpibalaratu dira (Calvo, Iantzi eta Kalparsororen heriotzak). Kazetaritzan albiste, izenburu eta eduki informatiboetarako zeuden arau tradizionalak aldatu egin dira. Enfrentamendua eta agresibitatea dakarren sinplekeria manikeoa erabili da. Amnistiaren aldeko Gestorek antolatutako ekintzetan kazetariak mehatxatu ziren. HBk ohar kezkagarria plazaratu zuen, tonu mehatxatua erabiliz eta lankide arteko salakeria eskatuz.

Bigarrenez, poliziak «Egin-en» artxiboetan eginiko sarrera arbitrarioa dago. Gobernutik «Egin» ixtea eskatu da eta publizitateari boikota egiteko deia egin da. Honek guztiak komunikazioaren alor pribatuan agintekeriazko eskuhartzea egin dela adierazten du.

Hirugarrenez, filtrazioak eta dokumentu pribatuak publikoki erakustea onartzen dituen kazetaritza instituzionalizatu egin da, legezketasuna eta egiazketasuna ziurtatu gabe eta pribatutasuna aintzakotzat hartu gabe. Esklusiba sentsazionalistaren lehiari ekin zaio.

Azkenik, nahiz eta erabaki parlamentarioak hartuta egon, informazioa komunikabide publikoetan ez da anitzago bihurtu, alderdiei dagokien minutu banaketatik harantzago behinik behin.

Balio profesionalak auzitan

Deontologia autoerregulatzailerak eta irizpide profesionalak erabilia ere, informazioa beti izaten da informatzailearen araberakoa. Inoiz ez da neutrala izaten. Bereziki Euskadin, krisian eta bidegurutzean dagoen herri honetan. Elkarren artean onartu gabeko unibertso sinbolikorik gabe gauden honetan. Honaino, halere, normala irudi lezake honek, nahiz eta iritzi ezberdinek komunikabideetara iristeko dituzten aukerak oso desberdinak izan.

Kezkagarriena, aldi berri batean sartu izana da. Informazioaren arau eta funtzioetan aldaketa kualitatiboak ari dira gertatzen, agi denez, lanbideak bereganatzen dituenak. Informazioa zentzuz aldatzen ari da, aldi berezietarako informazio gisa hartuz, ekintza politikorako tresna bilakaturik, interes politikoen eta iritzi-taldeen menpeko zuzen bihurtuz, lagun/arerioen arteko enfrentamenduari lagunduz eta, itxura batean, nolabaiteko adierazpen-askatasun abstrakto baten kontra jo gabe.

Sinplekeria eta manikeismo horretatik, ordea, beren burua biktimatzen dutenak ere ez dira libratzen. MLNVaren kontrako iritzi-joerek beraien estrategia politikoekin zerikusirik ez balute bezala eta gizartean errorik ez balute bezala hartuz, bere gidariek komunikabide eta kazetariei leporatzen diete joera horien errua, aldi berean, berorien kontrako mezu gotor bat eraginez. Oinarrian gizartearen beraren joeren katalizatzaile diren «mezulariak» errudun bihurtzen dituzte, estatuaren botere polizial eta ejekutiboaren esku zuzenak balira bezala aurkeztuz.

Muturreratzearen arriskuak

Alde bateko eta besteko komunikabideek elikatzen duten enfrentamendu sozial honetan, beste ate arriskutsu bat ari gara igarotzen: informazioa fronte politiko bihurtzen da —esplizitoki indarkeriaren aurka eta inplizitoki, arerio ideologikoak direnena kontra—. Gerra informatiboa egiten da «guztiak balio du» pentsatuz. Denok ikusi behar genuke, gizartearen muturreratze horrek bi ondorio larri dituela. Batetik, desagertu egiten da komunikabideen funtzio demokratizatzailea (elkarrizketa soziala, hausnarketa, ideien eztabaida libre bultzatzea). Bestetik, kazetaritzak berezko dituen balio eta arauak, inplizitoki nahiz esplizitoki, hondatu egiten dira.

Errealitate honen aurrean, Adierazpen Askatasunerako Plataformaren kideok, gure aniztasunetik abiatuta, euskal kazetaritzak elkarren artean adostutako norabide batzuetan joan behar duela uste dugu: adierazpen-askatasunaren alde, garai honetarako arau etikoak bilatu nahi dituen debate baterantz, eta honek guztiak irekita dauden komunikazio-liskarrak konpontzeko izan dezakeen gaitasunerantz. Hiritarrek ondo informatuak izateko duten eskubideak zenbait joera aldaketa eskatzen du: agintari publikoengan, erakunde sozial eta politikoengan eta kazetari eta komunikabideengan. Gure aldetik langintza honekiko atxikimendua aitortzen dugu eta ardura hori berenganatzen dutenengana zabalik gaudela adierazten dugu. Eginkizun hau, kazetari eta komunikabideei beraiei dagokie.

Ramon ZALLO (EHUko kazetaritza-irakaslea) eta beste 41 sinadura.

Egunkaria, 94-2-10 (moldatua).

Lau aukeren artean erantzun zuzena aukeratu eta atzeko koadroan markatu.

1.-Zer esaten da artikulua lehenengo pasarteetan?

- a) Adierazpen Askatasunerako Plataformak duela zenbait hilabete iragarri zituen gertakizunak bete egin direla.
- b) Aspaldi honetan gertatu diren gauza batzuek, Plataformak iragarri zituen zenbait arrisku konfirmatu egin dituztela.
- c) Plataformak zer gertatuko zen bete-betean asmatu duela esaten da.
- d) Kazetarien lanen arriskuaz hitzegiten da.

2.-Iglesiasen bahiketa zela eta, zer gertatu da?

- a) Gezur asko esan da.
- b) Alarma soziala eragin da.
- c) Kazetarien mehatxuak izan dira protagonista.
- d) Kazetaritzan erabiltzen ziren zenbait arau aldatu egin dira.

3.-Bahiketa horrek nolako ondorioa izan du prentsan?

- a) Agresibitatea eta enfrontamendua bultzatu dira prentsan sinplekeria manikeoaren bidez.
- b) Gestorek antolatutako ekintzetan kazetarien arteko salaketak bultzatu ziren.
- c) Mobilizazioak prentsak eragin ditu.
- d) Goierriko enpresarien bilerari buruzko albistea gezurrezkoa izan zen.

4.-Zer esaten da artikulua lehen atalaren azken pasarteetan?

- a) Parlamentuak aniztasuna bultzatzea erabaki arren, hori ez dela bere osotasunean bete.
- b) Parlamentuaren erabakiak ez direla medio publikoetan isladatzen alderdiek ez badute nahi.
- c) Parlamentuko erabakiak alderdiei dagokien minutu apurretan ez beste aniztu direla.
- d) Erabaki parlamentarioak alderdiei dagozkien minutuak banatzeko direla.

5.-Artikuluaren bigarren atalaren lehen pasartearen zer esaten da?

- a) Informazioa beti partziala dela.
- b) Irizpide profesionaletik egiten bada, informazioa ez dela sekula partziala.
- c) Batez ere, Euskal Herrian izan beharko lukeela inpartziala informazioak.
- d) Elkarren artean onartu gabeko unibertsoak ez duten herrietan ezina dela informazio inpartziala ematea.

6.-Aurreko galderakoaz aparte, zer dio pasarte honek?

- a) Iritzi batzuek komunikabideetara heltzeko aukera txikiagoak dituztela beste batzuek baino.
- b) Euskal Herrian joko politikorako araurik gabe gaudela oraindik orain.
- c) Iritzi ezberdin guztiak ez direla komunikabideetara iristen.
- d) Euskadin inor ez dela neutrala.

7.-Informazioa zentzuz aldatzen ari da...

- a) interes politiko hutsei lagunduz.
- b) momentuko egoerak eskatzen duenaren arabera erabiliz.
- c) adierazpen-askatasunaren kontra inola ere joan gabe.
- d) aisialdirako informazio gisa hartzeagatik.

8.-MLNV bera ere ez da manikeismo horretatik libratu,...

- a) kazetarien kontrako mezu gotorra eragiten baitu.
- b) Estatuaren botere polizial eta ejekutiboek egiten duten bezala, «mezulariak» erruduntzen ditu eta.
- c) izan ere, ez dute kontuan hartzen kazetariak esaten dituzten gauzek gizartean ere erroak dituztela.
- d) bere kontrako iritziek estrategia politikoetan oinarriak edukiko ez balute bezala tratatzen baititu.

9.-Adierazpen Askatasunerako Plataformaren kideek...

- a) garai honetako arau etikoen bilaketarako debateak antolatzeko prest daudela diote.
- b) komunikazio-liskarrak konpontzeko eztabaidak eduki dezakeen balioa aipatzen dute.
- c) gizarteko liskarrak konpontzeko prentsak eduki dezakeen gaitasuna aipatzen dute.
- d) hiritarrek ondo informatuak izateko duten eskubidea arazo informatiboaren oinarrian jartzen dute.

10.-Zer diote Plataformaren kideek?

- a) Kazetaritzarekiko atxikimendua bereganatzen dutenengana zabalik daudela.
- b) Artikuluan zehar azaldu den arazoari irtenbideak bilatzea kazetari eta komunikabideei dagokiela.
- c) Norbere ardurak bereganatzen dituztenengana zabalik sentitzen direla.
- d) Artikuluan zehar azaltzen den ardura bere egiten duten komunikabideetan parte hartzeko zabalik daudela.

ERANTZUNAK

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

2. IDAZLAN LABURRA: GUTUNA

Idazlan hau egiteko, behean agertzen zaizun egoerari erantzun behar diozu modu diskurtsiboan. 200 hitz inguru idatzi behar dituzu.

Zu B ereduko ikasle-talde bateko tutorea zara. Zure ikasleek euskara erabil dezaten Plentziako **Euskal Girotze Barnetegian** bi asteko egonaldia egitea pentsatu duzu. Idatz ezazu **gutun** bat Hezkuntza Ordezkaritzara barnetegiei buruzko informazio gehiago eskatuz eta zure taldearekin joateko datak proposatuz. Horrez gain, eman ezazu zure taldeari buruzko informazio zehatza: maila, ikasle kopurua, euskara maila etab.

3. IDAZLAN LUZEA

**Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta garatu behar duzu.
350 hitz inguruko idazlana egin behar duzu.**

Irakaslearearen prestakuntza. Irakasletzan aritzeko behar den prestakuntza bide desberdinetatik eskura daiteke. Alde batetik unibertsitatean ikasitakoa dago. Gero, ordea, etengabeko prestakuntza ere behar da. Idatz ezazu **artikulu bat** pedagogi aldizkari baterako gai honen inguruan.

Hona hemen uki daitezkeen zenbait puntu:

- Horrelako prestakuntza lortzeko dauden aukerak: udako ikastaroak, IRALE, IRAPREST...
- Prestakuntza horrek hartu behar lituzkeen arloak: hizkuntza, zientzia, metodologia...
- Arlo horretan izan dituzun esperientziak...

EDO

Eskola-porrota. 13 eta 16 urte bitarteko neska-mutilen artean fenomeno kezagarria da eskola-porrotarena. Topaketa edo jardunaldi batzuk antolatu dira ikastetxeen arteko esperientziak trukatzeko. Bertan parte hartzeko **txostena** idatzi ezazu. Hona hemen uki daitezkeen zenbait puntu:

- Zer da eskola-porrota?
- Zergatik gertatzen da?
- Zer eragin du familiaren egoerak, irakasleak, sistemak berak?
- Zure esperientzia (zuzena edo zeharkakoa).
- Irtenbide posibleak.

IV. AHOZKO AZTERKETAK

IV.1. AHOZKO AZTERKETAK: HE1

HE1eko ahozko azterketak bi zati ditu:

Albiste laburrak: Orri batean ematen zaizkion bi albiste laburren artean bat aukeratu eta prestatu beharko du azterketariak 20 bat minutuan, gero aztertzaileen aurrean azaltzeko bospasei minututan.

Elkarrizketa: Albiste laburraren azalpenaren ondotik, aztertzaileek gai bat proposatuko diote eta horren inguruan hitz egingo dute azterketariak eta aztertzaileek beste bospasei minututan.

ALBISTE LABURRAK

OHARRA: Bi albiste labur eskaintzen dizkizugu, bakoitza bere gai be-reziarekin. Nahi duzuna aukera dezakezu zure azalpenerako. Garatu zuk aukeratutako gaia. Lehendik duzun esperientzia, ezaguera eta iritzia era-bil dezakezu horretarako.

1.

Adio koralezko arrezifeei. Koralezko arrezifeak munduko 109 herrialdetan daude, eta 90etan galzorian. Hori dio Naturaren Aldeko Munduko Elkarteak. Zer-gatik? Hiru dira arrazoi nagusiak. Bata itsasertzean hotelak eta kaiak «nolanahi» eraikitzen direla. Bi, arrantzan, batzuetan, dinamita erabiltzen dela eta hirugarren, basoa urritzen denean, sedimentazioa sortzen dela, eta horrek kalte egiten diola itsasoari.

Koralezko arrezife bakar batean itsas-espezie asko bizi izaten dira, 3000 kasu batzuetan.

galzorian = galtzeko zorian
itsasertza = costa

Bilboko La Salve zubitik bere burua bota zuen 16 urteko mutiko batek joan den ostegun iluntzean. Nerbioi ibaira erori zen mutikoak bere kabuz igeri egiten irtetea lortu zuen. Zauri larririk ez zuen izan baina Basurtuko Ospitalera eraman zuten osasun-azterketa egiteko. Bere ekintza damutu zaion ikasle gazteak Bilboko Udaltzaingoari aditzera eman zionez, azterketetan kalifikazio txarrak zituen eta gu-rasoak haserretuko ziren beldur zen.

bere kabuz = por sus propios medios
damutu = arrepentitu
aditzera eman = dar a conocer

2.

Etxeko lanak egiteko morroi atzerritarrak. Gurean morroiak bestelako lanetan aritzen ziren: soroan, behiak jezten... Atzerritik etorritako morroiek, ordea, denetik egiten dute: ontziak eta arropak gabitu, plantxatu, jana maneatu... eta, bide batez, askok ingelesez egiten dute umeeekin. Hori mauka! Jakina, atzerritar horiek ez dira Estatu Batuetakoak edo Suezikoak. Hirugarren Munduko herrialdeetatik etortzen dira gehienetan. Oraintxe ulertu duzue ezta? Baita zera ere!

Eta beste ohartxo bat: gizonei ez zaie gustatzen etxean beste gizon bat sartzea. Zergatik ote?

soro = campo
jetzi = ordeñar
maneatu = prestatu
hori mauka! = menudo chollo!

Einstein zientzilariaren burmuina 80 urteko estatu batuar baten etxean dago, bi pitxerretan sartuta, eta ez orain artean uste izan den bezala pertsona ospetsuei dagokien panteoian. BBC telebista kate britainiarrak egindako dokumental batean argitzen denez, zientzilariaren materia grisa Thomas Harveyk lapurtu zuen Einsteini autopsia egiten ari zitzaianean.

pitxer = jarra
ospetsu = famoso

3.

Eskoletan ere «olagarroa» ugari. Pelikuletan askotan azaltzen dira eskoletako sexu-erasoak. Jende askok gogoan ditu bere haurtzaroko besaluze haiek, baina zeini kontatu garai hartan? Orain errazago salatzen dira horrelakoak. Estatu Batuetan, adibidez, ikasleek sarritan salatzen dituzte irakasleak. Azterketa gainditzearen truke zera eskatu diola, txiste lizunak kontatzen dizkiola edota esku luzeegia duela, hura salatu eta kitto. Ez dago auzitegira joan beharrik. Eskolako disziplina-batzordean egiten da salaketa.

olagarro = pulpo
besaluze = «manos largas», «sobón»
lizun = obsceno
auzitegi = juzgado

2 dolarreko pentsioa jasotzen du Gorbatxovek; hots, hilean 274 pezeta inguruko (11,4 libera) pentsioa dauka Errusiako lehendakari ohiak, Errusiako egunkari batek atzo zekarrenez. 1991tik jasotzen du Gorbatxovek diru hori. Garai hartan onargarria zen pentsio hori, gaur egun irrigarria da. Egunkariak erretiro plan egoki bat tramitatzeko gomendioa eman badio ere, Gorbatxovek horren beharrik ez duela uste du, mundu zabalean egiten dituen bidaia eta konferentzietatik nahikoa ateratzen baitu.

onargarri = aceptable
irrigarri = irrisorio

4.

Txinar bi. Munduan lau lagunetik bat txinarra da. Mila milioi lagun badira. Hango guraso batzuek ume bakarra ekartzen dute mundura. Legeak ez die uzten gehiago ekartzen. Baina badira salbuespenak. Txinako zientzilari eta intelektualek badute bi haurtxo munduratzeko aukera. Legeak uzten die hori egiten. Zergatik? Horrela hobetu egingo omen da biztanleriaren kalitatea. Bestela, pentsa, ia jaio berri guztiak analfabeto eta txiroen ume!

salbuespen = excepción
munduratu = traer al mundo

Neskak mutilak baino zuhurragoak dira eta kirola egiteko oinarrizko abilitateetan gainera, hobeak; hala nola neurri-distantziak kalkulatu behar direnean, oreka gorde behar denean. etab. 10 urte bete bitartean indarrean besterik ez dira nagusitzen mutilak baina hortik aurrera, martxan dauden txapelketa guztietan mutilen esku dago kirola. Eskolak egiten du bazterketa hori, gurasoek, gizarteak. «Uste dut Gurasoen Eskolak antolatu beharko genituzkeela gauzak aldatzeko» dio gorputz-hezkuntzako irakasle batek.

zuhur: prudente, perspicaz

ELKARRIZKETA-GAIAK

Aztertzaileek honelako gidoiak erabili izan dituzte elkarrizketarako:

1.-Hezkuntza Sailaren formazio-eskaintzak egokiak al dira?

- Erraz aurkitzen dira intereseko ikastaroak?
- Intereseko ikastaroetan plaza hartzea erreza izaten da?
- Zein kalitatekoak izaten dira ikastaroak?
- Euskal gizartearen eta gure Hezkuntza Sistemaren beharrei erantzuten al dio formazio- eskaintzak?

2.-Eskola-kontseiluen ekarpena irakaskuntzara.

- Lan-karga handia ote dairakasleentzat?
- Eskolaren demokratizatzaile?
- Botere gehiegi ematen die gurasoei?
- Eskolaren pertsonalitatea indartzen al du?
- Erabakiak hartzeko ajilidade eta eraginkortasuna indartu ala ahuldu egiten du?

3.-Eskolako irteerak eta lan-baldintzak.

- Nahikoa saritua dago eskolako irteeretan irakasleok egiten dugun esfortzua?
- Irakasle batzuek irteerak antolatzen dituzte eta beste batzuek ez. Zer iruditzen zaizu hori?
- Balio pedagogiko frogaturik ba ote dute, ala moda besterik ez dira?
- Gurasoen partetik presioa al dago kontu honetan?
- Istripuen arriskua dela eta nahikoa babes legala dugu irakasleok?

4.-Matrikulazioa jaisteak irakaskuntzaren kalitatean eraginik izan al du?

- Kalitatea igo egiten da?
- Irakasle / ikasle ratioak egokiagoak dira?.
- Irakasleak ere soberan daude?.
- Zentruen arteko lehia ikasleak erakartzeko.
- Birziklaiarako aukerak eta beharrak.

5.-Ikastetxe Pribatuen Finantziazioa.

- Subentzioek osatzen dituzte sarrerarik gehienak.
- Aurrekontuaren %29a ikasleen kuotekin ordaintzen da.
- Aldatuko al zenuke gaurko egoera?

6.-Irakasle tutorea.

- Zeintzuk dira tutorearen funtzioak: ikasleekin, irakaskideekin eta gurasoekin?
- Zeintzuk izaten dira gorabehera nagusiak?
- Tutore izateko prestakuntzarik ba al dugu? Eta behar litzateke?

7.-Gurasoekiko harremanak.

- Harreman atseginak dira ala tentsio handia dakarte?
- Nola bizi duzu gai hau zure ikastetxean oro har eta zeuk pertsonalki?
- Bilera asko izaten dituzue?
- Aldatuz ote doaz guraso gazteak?

8.-Ikasleekiko harremanak.

- Zer nolako harremanak dituzu ikasleekin gela barnean edota ikastetxean orohar?
- Nolakoak dira zure ikasleak?
- Mehatxurik erabiltzen al duzu? Nolakoak?
- Zigor-sistematik erabiltzen al duzu? Eta saririk?
- Ikasleen parte hartzea bultzatzen al duzu? Nola? Lortzen al duzu?

IV.2. AHOZKO AZTERKETAK: HE2

**Proba honetan bi ariketa egin behar dituzu.
30 minutu izango dituzu guztia prestatzeko.**

1. TESTU BATEN AHOZKO LABURPENA

Irakur ezazu arretaz alboko orrian datorren testua —apunte laburrak jasoaz, nahi baduzu—. Gero **zazpi minutu** izango dituzu haria aztertzaileei azaltzeko, testua birkontatuz. Bigarren mailako xehetasunak bazter ditzakezu, helburua **nondik-no-rako nagusiak** ematea baita. Idatzizko laburpena besterik gabe irakurtzea ez da onartuko; testua bera zatika irakurtzea ere ez, testua han edo hemen lagungarri gisa erabiltzea zilegi bada ere.

OHARRA: Testu hauek normalean aldizkarietatik edo libururen batetik jasotako artikulua izan ohi dira, fotokopiatuak eta orrialde bat edo bikoak.

2. AZALPEN LIBREA

Ondoko hiru gaien artean bat aukera eta presta ezazu. Gero **zazpi minutu** izango dituzu gutxi gora-behera zure ideiak aztertzaileei azaltzeko. Egizu eskematxo bat paper batean, gero zure azalpenari lotura eta ideia-jarraipen argia eman ahal izateko. Mintzatzeko orduan ezin izango duzu testu jarraitu bat irakurri.

Hona hemen erabili diren gai-multzo batzuk:

- 1.-Nolako irakaslea zara?
 - 2.-Sexu-heziketa ikastetxean.
 - 3.-Erreformatik dakarren lanpostu-aldaketa.
-
- 1.-Ikasleen partaidetza eta erabakimena gelan eta ikastetxean orohar.
 - 2.-Hirugarren hizkuntza irakastea gizarte elebidunetan.
 - 3.-Ikastetxeetako segurtasun-neurriak egokiak al dira?
-
- 1.-Ikastetxearen ordezkari-organak: osaketa eta eginkizunak.
 - 2.-Ikastetxeetako jolastokietan asfalto asko eta belar gutxi.
 - 3.-Irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak: aukerak, baldintzak, baliagarritasuna, ...
-
- 1.-Irakaskuntzaren kalitatea: aurreiritziak, ezaugarriak, baldintzak, ...
 - 2.-PPT edo PIFa.
 - 3.-Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arteko muga berria: 12-14 urte bitarteko irakaslea maisu-maistra ala lizentziatua?

- 1.-Matrikulazioa jaitea irakaskuntzaren onerako ote da?
- 2.-Emakumearen presentzia lan merkatuan.
- 3.-Ingurugiro-hezkuntzaren trataera eskolan. Nola egin behar litzateke?

- 1.-Egunkaria erabiltzen al da eskolako tresna bezala?
- 2.-Administrari profesionala eskoletan. Beharra? Luxua?
- 3.-Maisu edo irakasle arrunta nahikoa intzentibaturik dago? (Dirua, lan-bal-dintzak, gizartearen kontsiderazioa)

- 1.-Ikastetxeen arteko lehia onuragarria al da?
- 2.-Egia da uztartuago daudela eskola eta gizartea egun lehen baino?
- 3.-Euskara etxean ikasi eta eskolan aldrebestu?

V. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK

V.1. HE1eko IRIZPIDEAK

HE1eko Irizpide Nagusiak.

— Erreferentziak:

- Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua (1993ko apirilaren 2ko EHAA).
- 1994eko urtarrilaren 10eko Agindua (1994ko urtarrilaren 26ko EHAA)
- IRALeko HE1eko curriculum proposamena

— Hizkera eta Idazkera arrunta eta eskolan kontestualizatua erabiltzen jakin beharko du.

HE1eko Idazlanerako Neurpideak

Baremazioa. Idazlanak ebaluatzerakoan arlo desberdinak hartuko dira kontuan: gaiarekiko atxikimendua, gramatika-zuzentasuna, komunikagaitasuna (kohesioa, koherentzia...). Arlo desberdin horiek era integratu baten bitartez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren deskribapenak benetako testuen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: Baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Mailaketa hauxe da: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ondo, Oso Ondo.** Idazlanen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

HE1 - IDAZMENA

	DESKRIBAPENA
OSO ONDO	Hizkuntza aberatsa darabil. Akaso akats txikiren bat. Aditzak eta egitura arruntak ongi erabiltzen ditu eta gainera, maiz, forma aberasgarriak erakusten ditu. Mezuaren azalpen zehatza eta borobildua.
ONDO	Hizkuntza ongi darabil eta akats txiki batzuk izan ditzake. Aditzak eta egitura arruntak ongi erabiltzen ditu eta gainera, noizean behin, forma aberasgarriak erakusten ditu. Testua ongi egituratua eta mezuaren azalpena ona da.
NAHIKOA	Orohar, ongi darabil hizkuntza, baina hizkuntz akats larriren bat izan dezake. Aditzak eta egiturak era sinplean erabiltzen ditu. Agian akats txiki batzuk ere izan ditzake (ikus eraskina). Lexiko arrunta eta eskola girokoa ondo ezagutzen du. Testua ulergarri eta koherentea izango da era lojiko ordenatua nahiz eta era sinplean egina izan. Mezuaren azalpena, bereziki ona izan gabe ere, ongi ulertzen da irakurtzerakoan.
GUTXI	Orokorrean ez du hizkuntza ongi menderatzen, edo hizkuntz akats larriak nabarmenak dira. Akats txikiak ere izan ditzake. Aditzak eta egiturak oso arruntak dira eta batzuetan gaizki erabiliak, edo egitura konplexu samarrak erabiltzen ditu baina akats larriekin. Hizkuntz baliabideen eskasiak edo akatsen ugaritasunak mezua bera baldintzatzen dute. Agian, testuak, testugintza aldetik, egokitasun falta nabaria du.
OSO GUTXI	Orohar, oso hizkuntza pobrea erabiltzen du. Adierazpen hutsune haundiak ditu. Hizkuntz akats larriak ditu edo, agian, mezua ez du aditzera ematen.

HE1eko Ahozkorako Neurpideak

Baremazioa. Mintzamina ebaluatzerakoan arlo desberdinak hartuko dira kontuan: komunikagaitasuna, zuzentasuna, jariakortasuna, gaiarekiko atxikimendua. Arlo desberdin horiek era integratu baten bitartez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: Baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Mailaketa hauxe da: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ondo, Oso Ondo.** Ahozko ekoizpenen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

HE1 - MINTZAMENA

	DESKRIBAPENA
OSO ONDO	<p>Komunikagaitasuna: mintzagaitasun ona erakusten du. Elkarrizketaren inizatiba eramateko gai da.</p> <p>Zuzentasuna: akats gutxi eta txikiak, izatekotan.</p> <p>Jariakortasuna: badu etorria eta erraztasuna hitzegiterakoan.</p>
ONDO	<p>Komunikagaitasuna: elkarrizketa erraztasunez eramateko gai da. Bere ideiak garbi adierazten ditu.</p> <p>Zuzentasuna: akats larriren bat egin badezake ere horrek ez du alkarrizketaren haria oztopatzen.</p>
NAHIKOA	<p>Komunikagaitasuna: elkarrizketan parte hartzeko gai da. Esan nahi duena adierazten du behar adineko zehaztasunez eta automatismoz. Inoiz osatu gabeko esaldiak eta etenak gerta daitezkeen arren, komunikazioa aurrera ateratzeko estrategiak ditu: parafrasia, betegarriak ... (Ikus adibideak).</p> <p>Zuzentasuna: hizkuntzaren arauak errespetatzen ditu, inoiz akats larriak gerta daitezkeen arren (ikus zerrenda), bere burua zuzentzeko adina ezagutzen du gramatika.</p>
GUTXI	<p>Komunikagaitasuna: hizkuntz baliabideen eskasiak oztopoak jartzen dizkio elkarrizketari. Esan nahi duena nekez edo gaizki adierazten du. Etenak konpondu gabe uzten ditu maiz.</p> <p>Zuzentasuna: akats larriak nabariak dira eta zuzendu gabe uzten ditu maiz edo autozuzenketa nekagarria gertatzen da.</p> <p>Seguraski, jariakortasun arazoak ditu.</p>
OSO GUTXI	<p>Komunikagaitasuna: ez da elkarrizketa jarraitzeko gai. Normalean, interbentzio laburrak. Esaldi solteak ongi lotu gabeak.</p> <p>Zuzentasuna: hizkuntz akats larriak ditu edo hutsune nabarmenak. Esaldi bukatugabeak.</p> <p>Jariakortasun arazo nabariak.</p>

V.2. HE2ko IRIZPIDEAK

HE2ko Irizpide Nagusiak

— Erreferentziak.

- Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua (1993ko apirilaren 2ko EHAA)
- 1994ko urtarrilaren 10eko Agindua (1994ko urtarrilaren 26ko EHAA)
- IRALEko HE2ko curriculum proposamena

Erreferentzia Orokorra

Euskara jaso eta aberatsagoa zuzen erabiltzen jakin behar du. Berezko hitz-etorri jator, ugaria agertu behar du, hitzez zein idatziz. HE1eko hizkera arruntaz gain, irakasleari dagokion hizkera teknikoa (kontuan hartu teknikotasun horrek ba-koitzairen espezialitatekoa beharko lukeela izan; banakako berezitasun pertsonali-zatua ebaluatzea zaila denez, erdimailako teknikotasunarekin konformatu beharko; izan ere, kimikoaren eta filologoaren teknikotasunak ez dira gauza bera, adibidez).

Baremazioa

Idazlanak ebaluatzerakoan arlo desberdinak hartuko dira kontuan: gaiarekiko atxikimendua, gramatika-zuzentasuna, komunikagaitasuna (kohesioa, koheren-tzia,...). Arlo desberdin horiek era integratu baten bitartez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren deskribapenak benetako ekoizpneen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: Baremoan datozen deskriba-penetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Mai-laketa hauxe da: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ondo, Oso Ondo**. Idazlanen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

HE2 - IDAZMENA

	DESKRIBAPENA
OSO ONDO	Testu borobil eta aberatsa. Egitura landuak erabiltzen ditu eta lexiko aberatsa. Testuaren egituraketa ona.
ONDO	Testu egokia baina akats txikiren bat izan dezake. Aditz, egitura eta lexiko onak. Estilo zaindua, hartzaile eta komunikazio egoerari egokitua.
NAHIKOA	Egokitasun maila nahikoa du testuak: ulergarritasun egokia. Orohar gramatika aldetik testu zuzena da. Akats txiki batzuk ager daitezke, eta larriren bat (Ikus eraskina). Testuak eskatzen duen era diskurtsiboa erabiltzen du. Aditzak, egiturak eta lexikoa testuak eskatzen dituen zehaztasunei erantzutzeko bezalakoak dira.
GUTXI	Testuak ez du egokitasun maila nahikorik, besteak beste, hizkuntz akats larriak dituelako. Aditz eta egituretan akats larriak ditu edo sinpleegiak dira eskatzen zaion testu motarako. Batzuetan, testuaren koherentzia faltak mezuaren ulergarritasuna baldintzatzen du.
OSO GUTXI	Oso hizkuntza mugatua erabiltzen du. Adierazpen hutsune haundiak ditu. Hizkuntz akats larriak ditu edo mezua ez du aditzera ematen.

HE2ko Ahozkorako Neurpideak

Baremazioa. Mintzamena ebaluatzerakoan arlo desberdinak hartuko dira kon-tuan: komunikagaitasuna, zuzentasuna, jariakortasuna, gaiarekiko atxikimendua. Arlo desberdin horiek era integratu baten bitartez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren deskribapenak benetako testuen hur-bilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: Baremoan datozen deskriba-penetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Mai-laketa hauxe da: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ondo, Oso Ondo.** Ahozko ekoizpenen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

HE2 - MINTZAMENA

	DESKRIBAPENA
OSO ONDO	Ez du inolako eragozpenik azalpen konplexuak aberasta-sun eta jariakortasunez burutzeko. Azalpena koherente eta ongi egituratua da. Lexiko eta egitura aberatsak.
ONDO	Irakaskuntza alorreko ahozko azalpenak erraztasunez ema-ten ditu. Orokorki, hizkuntza gramatikalki zuzena akats txikiren bat egin badezake ere. Ideiak, konplexuak izan arren, ongi adierazten ditu.
NAHIKOA	Komunikagaitasuna: irakaskuntzak eskatzen dituen hi-tzezko azalpenak egiteko gai da. Ideia konplexu samarrak adierazteko hizkuntz baliabideak baditu. Zuzentasuna: orohar, hizkuntza gramatikalki zuzena, akats larriren bat izan dezakeen arren. Transmititu behar duen edukina, era egokiz adieraztea lor-tzen du.
GUTXI	Idea konplexuak adierazteko zailtasunak ditu, hizkuntz baliabideen eskasia dela eta. Akats larriak ditu edo eta ez du lorten mezua bere oso-tasunean adieraztea. Gaiaren xehetasun guztiak emateko hutsuneak ditu edo lexikoan edo hizkuntz formetan.
OSO GUTXI	Ahozko azalpena traketsa da. Akats larri ugari eta hizkuntz baliabide aldetik oso mugatua. Jariakortasun arazoak ditu.

HE2 Mintzamena: Orientabideak

- a) Gaiarekiko lotura, garapena, ideia-jarraipena eta iraupena:
- **laburpenean** eman zaion testuaren azalpena era ordenatuan eman beharko du, aurrez egindako gidoi edo eskema garatuz, informazioa eta argumentuen aurkezpena ordena logikoan emanaz eta ideia jarraipenak inolako oztoporik sortu gabe.
 - **gai-azalpen librean**, laburpenaz esandakoez gain, eskatzen zaion denbora betetzeko gai izan behar du, berehala gaia agortu eta mututu barik eta aztertzaileen galderen zain egon gabe.
- b) Jarioa eta abiadura:
- «Hizkera jariakor eta uniforme: gutxiengo abiadura bat entzutea eta haria jarraitzea oztopatzen ez duena.
- c) Aberastasuna, egokitasuna eta naturaltasuna:
- «Nabarmena da lexiko aberatsaren jabe dela. Noizbehinkako gabezia-egoera horietan, euskal itxurako ordainak erdaratik mailegatzeko, parafraseatzeko eta antzeko bideez baliatzeko estrategiak garatuak ditu.»
- Esaldi konplexuak, subordinazio-erak eta euskaldun jator batek tarteka erabiltzen dituen esapideak erabiliko ditu.
- d) Zuzentasuna:
- «Zuzentasun handiz hitz egiten du, noizik behin mezuaren ulerkuntza eragozten ez duten hutsegite morfosintaktikoak soma badaitezke ere. Haietariko gutxi batzuk sistematikoak izan daitezke, baina gehienetan bere burua zuzentzeko adina ezagutzen du hizkuntzaren funtzionamendua».

V.3. LAGUNGARRIAK

AKATS LARRIAK

Euskararen eguneroko erabilera zuzenaren kontra nabarmenki doazen hizkuntz akatsak dira. Jatorrizko hitzun alfabetatu baten belarrirako mingarri gertatuko dira normalean.

Adibidez:

Euskal hitz arrunten ordeztasun ordez, erdal hitzak erabiltzea: «*Utzi mesa gainean*», «*Barba luzea du aitak*».

Ergatiboa gaizki erabiltzea: «*Ni esango dizut*», «*Nik hasi naiz lanean*».

Sintagmen komunztadura edo ordena akatsak: «*Ikasleak nekatutak daude*», «*Beste herriko gizon bat (herriko beste gizon bat)*».

Aditzaren komunztadura-falta nabarmenak: «*Gizonak ikusi dut*», «*Ipuinak idaztea gustatzen zaizkit*».

Aditzaren errejimen huts haundiak: «*Zer ipintzen da liburuan?*», «*Hau gaziki funtzionatzen da*», «*Gaur goizean eskolan ikusi dizut*».

Denbora-nahasketa haundiak: «*Atzo gelan egoten ginen*», «*Etorriko bazina etxera joango gara*».

Sintaxi barruan, lokera: «*Daukat etxe bat mendian*».

Erlatiboak gaizki egitea: «*Ezagutzen dut gizon bat Parisen egon dela*».

Zehargaldera gaizki egitea: «*Ez dakit zer ordu da*».

Semantika arazoak: «*Pozak ezin ditu etorriko diren kezkak eta arazoak ukatu*».

Kontuan hartu behar da Ahozkoa eta Idatzizkoa testu mota desberdinak direla eta **Idatzizkoan modu zorrotzagoan** jokatu behar dela.

Idatzian, normalean, azterketariak erreflexiorako eta birzuzenketarako denbora duenez gero, **joskera-akatsak, ortografi akatsak** (erdal ortografiaren eragina, akats sistematikoak)... ere larrizat jo daitezke.

Ahozkoan autozuzenketak posibleak dira eta **ahoskera** kontuan hartuko da.

Idatzian, **ortografi akats gogorrak** ere larrizat hartuko dira. Ad.: «*Hau isan san, Hezkutitza, etorri nahiz*».

AKATS TXIKIAK

Euskara zuzenetik at gelditzen diren erabilera eta formak dira, baina erabilpen arruntan barkagarriagozat jotzen ditugunak.

Adibidez:

Maileguei euskal itxura ez ematea: «*Erreakzio kimika*», «*Delegazioa*».

Bizidunen deklinabidea gaizki erabiltzea: «*Gaur arratsaldean medikura joango naiz*».

Deklinabide loturak gaizki egitea: «*Autobusan, Lurrara*».

A itsatsia ez bereiztea: «*Gauz bat...*».

Erabilera normaleko hainbat akats:

Ergatibo plurala gaizki erabiltzea (*gizonak egin dute*), **femeninoa sartzea** (*neska maja da*), **ustekabeen egindako akatsak**.

Idatziari dagokionez, barkagarriagoak diren zenbait ortografi akats txikitzat hartuko dira: «*zihur, zerraila, hildo, ohiu*».

MEZUAREN AZALPENA

Gaiarekiko atxikimendua. Gai horren inguruan esan nahi duena adieraztea.

TESTUAREN ERAKETA

Testuaren koherentzia eta ordenamendua, konektore lojikoak...

TESTUAREN EGOKITASUNA

Testu mota egoerari, hartzaileari e.a. egokitua izatea.

V.4. PUNTUAZIO-SISTEMA

Deialdi irekia

Deialdi irekiak hiru fase edo proba izan ditu: lehenengoak Aukera Anitzeko Galdera-sorta eta Irakurmen-ariketa ditu. Bigarrenak Entzutezkoaren Ulermena eta Idazmen-ariketak, eta hirugarrena Ahozko proba izan da. Proba bakoitza bazter-tzailea izan da.

Lehen proban puntuak honela banatu dira:

LEHEN PROBA	HE1	HE2
AAG	50	50
Irakurmena	20	20
Guztira	70	70
Gainditze-muga	40	45

Bigarren proban pisurik handiena idazlanek izan dute. Idazlanak zuzentzeko goragoko orrietan azaltzen diren baremoak erabili dira, kategoria bakoitzari puntuazio bat emanez, esate baterako **Nahikoa** kategoriari 6 puntu dagozkio Idazlan laburrean eta 15 Idazlan luzean. Azkenean, honelako puntu-banaketa izan dute ariketok:

BIGARREN PROBA	HE1	HE2
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era	ariketarik ez
Idazlan Laburra	2/4/ 6 /8/10	2/4/ 6 /8/10
Idazlan Luzea	5/10/ 15 /20/25	5/10/ 15 /20/25
Gainditzeko	24	21

Hirugarren proban, hau da, Ahozkoan, **Nahikoa** lortu behar da gainditzeko.

Deialdi itxiak

Deialdi itxietan, berriz, Idatzizko zatia eta Ahozko zatia berezi dira eta aurtengo deialdian ez da ariketa baztertzailerik izan. Bai Idatzizkoaren nota, bai Ahozkoarena eta berdin Azterketaren nota orokorra **Oso Gutxi** eta **Bikain** mailen artean kalifikatu behar dira. Baina hori lortzeko ariketa bakoitzaren pisua formula baten bidez ponderatu da. Idazlanetan baremoko kategoria bakoitzari puntuazio bat eman zaio, esate baterako Idazlan laburrean Nahikoari 6 puntu eta Idazlan luzean 12. Taula honetan labur daiteke ariketa bakoitzari zegozkion puntuak.

IDATZIA	HE1	HE2
Ahozkoaren ulermena	Otik 6ra	ariketarik ez
Irakurmena	Otik 6ra	Otik 6ra
Idazlan Laburra	2/4/6/8/10/12	2/4/6/8/10/12
Idazlan Luzea	4/8/12/16/20/24	4/8/12/16/20/24
Guztira	48	42

Gero, lortutako puntuaziotik idatzizko azterketaren nota atera da:

IDATZIA	HE1	HE2
Oso Gutxi	0-14	0-12
Gutxi	15-22	13-18
Nahikoa	23-29	19-24
Ongi	30-37	25-31
Oso Ongi	38-44	32-37
Bikain	45-48	38-42

Azken nota lortzeko, ahozko azterketari idatzizkoari baino pisu gehiago eman zaio, batez ere HE1ean. Formula hauek erabili dira:

$$\text{HE1eko guztizkoa} = \frac{(\text{Idatzizkoa} + \text{Ahozkoa} * 2)}{3}$$

$$\text{HE2ko guztizkoa} = \frac{(\text{Idatzizkoa} + \text{Ahozkoa} * 1,5)}{2,5}$$

Azken puntuazioa, Orik 6rakoa, Oso Gutxitik Bikainerako mailetan eman da, Nahikoari 3 puntu zegozkolarik.

Deialdi itxietan, ordea, bada beste osagai bat: **Etengabeko ebaluazioa**, ikas-tegiak ikasle bakoitzari ipintzen diona. Ebaluazio hori kontuan hartu beharrekoa da zenbait ikasleren kasuan, alegia, azterketaren emaitzak ikaslea aprobatu behar den edo ez garbi uzten ez duenean (zati bat gutxigatik gaindituta ez dagoenean esate baterako). Honelako kasuetan, azterketaren eta etengabeko ebaluazioaren arteko konparaketa egin da, arloz arlo, azken emaitza erabaki baino lehen. Azterketaren bi zatiak gainditu gabe dituen azterketariari, ordea, ez zaio etengabekoa kontuan hartu. Orobat bi zatietariko edozeinetan Oso Gutxi izan duenari.

VI. ERANTZUNAK

VI.1.DEIALDI IREKIKO ERANTZUNAK

HE1: AAG

1 d	11 d	21 d	31 c	41 c
2 a	12 b	22 c	32 b	42 a
3 b	13 b	23 d	33 d	43 d
4 b	14 b	24 b	34 a	44 a
5 b	15 d	25 c	35 c	45 c
6 c	16 c	26 b	36 d	46 a
7 c	17 d	27 a	37 b	47 b
8 a	18 d	28 c	38 d	48 a
9 d	19 a	29 d	39 c	49 d
10 a	20 c	30 c	40 b	50 d

HE2: Irakurmena (Hezkuntza berri baten bila)

51 d	56 d
52 c	57 c
53 a	58 a
54 d	59 d
55 b	60 c

HE2: AAG

1 c	11 a	21 d	31 c	41 a
2 a	12 a	22 b	32 c	42 d
3 d	13 d	23 c	33 d	43 a
4 d	14 d	24 b	34 c	44 b
5 c	15 a	25 b	35 b	45 c
6 a	16 c	26 c	36 c	46 b
7 b	17 c	27 d	37 a	47 a
8 c	18 a	28 c	38 b	48 c
9 b	19 c	29 a	39 c	49 a
10 d	20 a	30 b	40 a	50 c

HE2: Irakurmena (Gerentzi funtzioaren garapena)

51 c	56 c
52 d	57 d
53 c	58 c
54 a	59 d
55 d	60 a

VI.2. LEHEN DEIALDI ITXIA: ERANTZUNAK

HE1: Ahozkoaren Ulermena (Ingurugiroari buruzko tesia)

1 c	2 d	3 b	4 a	5 d	6 b
7 b	8 c	9 d	10 a	11 b	12 c

HE1: Irakurmena (Zakarra)

1 d	2 d	3 c	4 d	5 b	6 b
7 d	8 b	9 d	10 c	11 b	12 c

HE2: Irakurmena (Emakumezkoen garuna, gizonezkoen garuna)

1 c	2 d	3 c	4 a	5 d
6 a	7 d	8 a	9 c	10 b

VI.3. BIGARREN DEIALDI ITXIA: ERANTZUNAK

HE1: Ahozkoaren Ulermena (Tabakoaren historia)

I. ZATIA

1	b
2	d
3	c
4	d

II. ZATIA

5	a
6	d
7	a
8	c

III. ZATIA

9	b
10	c
11	c
12	d

HE1: Irakurmena (Irakurlearen jakinmina asetzeko gaiak)

1 b	2 c	3 b	4 b	5 c	6 a
7 b	8 d	9 c	10 d	11 a	12 a

HE2: Irakurmena (Informazioa eta demokrazia Euskadin gaur)

1 b	2 d	3 a	4 a	5 a
6 a	7 b	8 c	9 b	10 b

VII. ERASKINA

ESTADÍSTIKA-LABURPENA

DEIALDI IREKIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	1.513	1.119
1. proba gainditu	908 (%60)	328 (%29.3)
2. proba gainditu	535 (%35.3)	125 (%11.1)
Ahozkoa gainditu	439 (%29)	99 (%8.8)

1. DEIALDI ITXIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	304	405
Gaindituak	178 (%58.5)	194 (%47.9)

2. DEIALDI ITXIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	198	405
Gaindituak	138 (%69.7)	258 (%63.7)

EUSKARA ZERBITZUKO ARGITALPENAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

1. GLOTODIDAKTIKA LANAK

a) *Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak*

- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Topikoak Eta Metodologiak.** *N. Gardner* (1).
- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Gramatika Ariketak.** *J.A. Mujika* (2).
- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Mailaketa Gramatikala.** *I. Olaziregi* (3).
- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Zenbait Artikulu** (5).
- **Hizkuntz Jolasak.** *M. Sainz - I. Olaziregi* (15).
- **Bakarka 1. Euskera a Distancia.** *J.A. Letamendia* (18).
- **Bakarka 2. Euskera a Distancia.** *J.A. Letamendia* (22).
- **Bakarka 3. Euskera a Distancia.** *J.A. Letamendia* (29).
- **Trebatzen. OHoko Goiko Ziklorako Hizkuntz Ariketak.** *M. Sainz* (23).
- **Euskalkiz Euskalki.** *R.M. Pagola* (19).
- **Euskararen Oinarrizko Hiztegia. Maiztasun eta Prestasun Azterketa.** *J.M. Etxebarria. - J.A. Mujika* (31).
- **Oinarrizko Hitzak. Euskarazko Hitz Erabilgarrienak.** *I. Olaziregi* (34).

b) *Bideo-gidoiak/ Txotxongiloak/ Musika*

- **Haurrak Euskalduntzen Giñolaren Bidez I.** *I.M. de Lezea - Kukubiltxo* (6).
- **Haurrak Euskalduntzen Giñolaren Bidez II.** *I.M. de Lezea* (9).
- **Eskolarako Ipuinak eta Txotxongiloak.** *I.M. de Lezea* (14).
- **Ipuin Zahar eta Berriak.** *L. Iriondo* (10).
- **Kontu Kontari.** *L. Iriondo* (20).
- **Amonaren Ipuinak.** *E. Genua* (12).
- **Ipuin Gehiago.** *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada* (13).
- **Jolasean.** *I. Urbieta* (11).
- **Musika Hezkuntza Eskolaurrean.** *I. Urbieta* (21).

c) *Gaitasun-agiriak*

- **Euskaltzaindiak Batasunerako Eskaini Dituen Erabakiak** (8).
- **Euskararen Gaitasun Agiria. Programa.** (7).
- **Ega. 1993-94ko Azterketak** (43).
- **Irakasleen Hizkuntz Eskakizunak. 1994ko Azterketak** (42).

Oharra: Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.

d) Ebaluazioak eta hizkuntz testak

- **EIFE 1. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina** (lau hizkuntzatan), *J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra* (HUIS - HPIN).
- **EIFE 2. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina.** (lau hizkuntzatan), *J. Sierra - I. Olaziregi* (33).
- **EIFE 3. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina** (hiru hizkuntzatan), *J. Sierra - I. Olaziregi* (36).
- **HINE. Hizkuntza Idatziaren Neurketa Eskolan.** (bi hizkuntzatan) *J. Sierra - I. Olaziregi* (38).
- **Galbahe E1 Hizkuntz Testa** (B eta D erduetako OHoko 2. mailarako). *I Olaziregi- J. Sierra* (26).
- **Galbahe E2 Hizkuntz Testa** (Beta D erduetako OHoko 5. mailarako). *I Olaziregi - J. Sierra* (25).
- **Galbahe C1 y C2. Tests de Lengua** (gaztelaniazko testak OHoko 2. eta 5. mailerako), *J. Sierra - I. Olaziregi* (27).
- **Zortzi-A Hizkuntz Testa** (A erduko OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (28).
- **Pir-5 Hizkuntz Testa** (B eta D erduetako eskolaurre-amaierarako). *I. Olaziregi - J. Sierra.* (30).
- **Euskara Probak. Irakurmena eta Idazmena** (OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (37).
- **Pruebas de Lengua. Comprensión Lectora y Expresión Escrita** (8º de EGB), *J. Sierra - I. Olaziregi* (39).

2. HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

- **Bizkaieraren Idaztarauak. Deklinabidea eta Aditza.** *A. Arejita -J.M. Irazola - J. Uriarte* (1).
- **Euskal Aditza: Bizkaiera eta Batua.** *J.M. Irazola* (2).
- **Bizkaierazko Joskera.** *A. Arejita -J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte* (4).
- **Hezkuntza Administrazioako Hiztegia.** *I. Olaziregi - J.M. Berasategi - M. Zalbide* (5).

3. ZABALKUNDE LANAK

a) Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)

- **Laguntza Deialdien Emaizak 1980-85.** *R. Berriozabal - M. Zalbide* (10).
- **Eima. Ekintza Plana. Azalpen Baterabildua 1986.** *R. Berriozabal - M. Zalbide* (14).

- **Hezkuntza Softwarearen Bilduma 1993.** *M. Usabiaga etab* (35).
- **Ikasmaterial Idatzien Bilduma 1994.** *B. Basterretxea - I. Olabarria - M. Zalbide* (38).
- **Ikus Entzunezko Ikasmaterialen Bilduma 1994.** *P. Mendizabal - I. Olabarria - M. Zalbide* (39).

b) *Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)*


- **IRALE. 1994-95ko Aurkezpen Txostena** (36).

c) *Normalizazio legearen garapena (NOLEGA programa)*

- **Euskal Girotze Egonaldietarako Eskuliburua.** *Askoren artean* (16).
- **Eskola-Antzerkia.** *Askoren artean* (18).
- **Eskola Antzerkia 2.** *Askoren Artean* (30).
- **Eskola Antzerkia 3.** *Askoren artean* (31).
- **Eskola Hiztun Bila.** *B. Basterretxea etab.* (28).
- **Urruzuno Literatur Lehiaketa. Lan Sarituen Bilduma** (urteko ale bana 1986tik 1994ra).
- **Goazen Barnetegira** (Bideoa).
- **Euskal Girotze Barnetegiak** (Bideoa).
- **Euskal Girotze Barnetegiak.** *Askoren artean* (34).
- **Ikastetxeen Errotulazioa.** *C. Lobo - I. Artola - J.M. Berasategi* (37)

d) *Bestelakoak*

- **Euskara Gaur Eguneko Hezkuntza Araubidean** (20).
- **Euskal Irakaskuntza: 10 Urte.** *M. Zalbide etab.* (24).
- **10 Años de Enseñanza Bilingüe.** *M. Zalbide etab.* (24).
- **Euskal Irakaskuntzaren Garapen-Bidea.** (txostentxoak) (25).





Irakasleen hizkuntz eskakizunak EK15020244